



GOIERRITARRA

Azintzioak eta Loinatzak



h e m e n

DISEINU ALTZARIAK

URDANETA KALEA, 56 • 20240 ORDIZIA

TFNOA./FAXA: 943 88 46 41

KALITATEA ETA ZERBITZUA ZURE ESKURA
ETA ORAIN 24 HILABETETAN ORDAINTZEKO AUKERA



**KOTXEENTZAKO
DEN-DENA**

**GARBIKETA ETA
MANTENIMENDUA**

- Neumatikoak
- Direkzio zuzenketak
- Gorpilen oreka elektronikoa
- Ihes-tutuak
- Olio aldaketa...

**10. Poligonoa, 18. Pabilioia
Salbatore - BEASAIN**


☎ 943 16 18 47

*Festa zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

VENTANAS SAN MIGUEL

*Mendeurren etorbidea, 2
(Sarrera Nafarroa etorbidetik)
Tl. 88 91 53 Beasain*

*Zure ongizatea
babesteko gande*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTITAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierriarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)

124 posta-kutxa

20240 Ordizia

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

<http://www.ordizia.net>

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Gabino Murua,
Jon Ordoñez, Joseba Etxezarreta,
Edurne Albizu, Agurtzane Biku-
ña, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxa-
ga, Aitziber Murua, Pello Baran-
dian, Xabier Mendiguren eta
Txindoki Institutoa.

**Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu inprimategia
(Zubillaga auzoa, Oñati).

Tirada: 7.600 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRA ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Ertaroko azoka Ordizian
maiatzaren 8an eta 9an**

Donejakue edo Santiagoko bidea izango du aurten protagonista maiatzaren 8an eta 9an Ordizian ospatuko den Ertaroko azokak. Antzezpenak gai horri lotutakoak izango dira. Orduero egingo dituzte antzezpenak, Ordiziako erdiguneko kaleetan. Haurrentzat zeramika eskola, gizon orkestra, magoa eta zapelatzak izango dira. Desfileak 12etan 17:30etan egingo dituzte. Xake bizi-duna ere egingo da, larunbat eta igandean, arratsaldeko 6etan.

Ordiziako taldeek ere parte hartuko dute azoka berezian. Arkularien taldeak, Urrup antzerki taldeak, Laguntasuna Errondailak, Betti-Argi musika bandak eta Santa Ana abesbatzak beraien ikuskizunak eskainiko dituzte.

Afaria

Larunbat gaua berezia izango da Ordizian, ertarora egingo baitute salto. Bate-tik, 9,30etan, akelarrea izango da plazan. Ondoren, 10etan, Barrenan ertaroko afaria izango da, 1.500 pezetaren truke. Menua: ur-daiazpikoa, hainbat hestebete, perretxiku tartaletak, salda, Lumagorri baserriko oilaskoa, mahai borobileko pastela, basa fruituak, kafea eta fruta likoreak. Txartelak Barrenan eros daitezke. Afariko giroak agintzen duen bezala, ertaroko jantziak alokatu daitezke, 1.500 pezetan, Barrenan bertan.

Ikuskizunez gain, hainbat postu egingo da produktuak eta abar saltzeko. Azokaren ordutegia hauxe duzue: 11:30etik 14:30era eta 17:00etatik 21:00era

BOTA BERTSOA



Iñaki Apalategi

(Goierriko Bertso-eskolako
ikaslea)

Kosovoko gerra

*Doinua: zortziko
handiko edozein.*

Botutan egin ezin duena indarrean erabaki Milosevicek bihurtu ditu etsaien trenak lubaki txikitandian diruduna ta ongi hezia izaki pertsona horrek txiroentzako gerra bat zer den ez daki.

NATOtik bonba, hegazkin eta misilekin dira mintza hainbat herriska suntsituz eta hainbati kenduz bizitza bakea gudaz lortu asmotan alfer-alferrik dabilta edozein guda konpontzekotan hitzak duelako hitza.

**Eusko Jaularitzako Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

**Helduen, umeen, bikoteen eta
sexologi tratamenduak**

AURRE ZITA

☎ 943 88 72 21

☎ 910 02 00 41

Oriamendi, 3 - 2. ezk.
BEASAIN



**GENERALI
Aseguroak**

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

☎ 943 88 87 02

BEASAIN

Autowag, s.a.



Golf berria!

☎ 943 88 82 54 / 62 / 66

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

Argitarapen honen edizioa laguntza:

En la edición de esta publicación colabora:



*fundazioa
fundación*

BEASAINGO LOINATZ JAIK



**BEASAINGO
UDALA**

Agurra:

1999ko urtea aurrera doa eta aurten ere Beasaingo Loinatz jaiak gozatzeko parada izango dugu. Amaitzeaz dagoen legealdiaren azken jaiak izango dira eta beste urteetan sentitzen genuen zoriontasun berberarekin aritu gara prestakuntza-lanean. Zuek eta guk erruz egin dugu lan helburu batekin: Beasaingo Loinatz Jai bikainak prestatzeko helburuarekin alegia.

Pozik egoteko ez ditut arrazoi gutxi, eskuko jai-egitaraua zuen etxeetara iritsi da eta dagoeneko irakurtzen ari zarete. Beasaindarren laguntzak eta iritziek, programa argitaratzea posible egin dute. Eskerrik asko.

Halaber, ez ditugu ahaztu behar, hamaika arrazoi direla bide, Beasaingo Loinatz Jaiak gozatzerik ez dutenak. Gogoan ditut eta hemendik agur bero bat bidaltzen diet hurrengo urtean hemen egongo diren itxaropenarekin.

Beraz jaiak gozatzerik duzenoi, bai beasaindarroi eta baita herriz kanpotik etortzen direnei ere, Loinatz Jai zoriontsuak opa dizkizuet. Goza ezazue denen artean prestaturiko ekitaldiekin eta harmonia eta dibertsioa elkarrekin ibil daitezela. Aupa Beasain eta gora 1999ko Loinatz Jaiak.

Jon Jauregi Bereziartua

Beasaingo Alkatea



TXANDAKA

Aukera ederra

Aurki izango ditugu herri-agintari berriak gure udal guztietan, eta betiko arazo zaharrak konpontzen ahalegindu beharko dute horiek ere: etxebizitzaren prezioa, gazteentzako lan-aukerak sortzea, bideak eta saneamenduak txukun edukitzea, herritarrentzako zerbitzu egokiak eskaintzea... Esker on gutxi eta buruhauste franko ematen duten kontuak denak ere, eta alde horretatik animo esan nahi diet hemendik alkate eta zinegotzi guzti-guztiei.

Eta eskaeratzat bat egin ere bai. Ez da seguru asko arazo larriena izango, baina badu inportantzia, GOIERRITARRAren irakurleentzat behintzat: euskararen erabilera gure udaletan. Herri txikietan dena euskaraz egiten dela esango dit baten batek, baina ez da guztiz egia: auziak euskaraz hitz egin eta erabaki bai (onenean), baina gero paper-kontuak erdaraz egin ohi dira gehienetan; eta kanpoko enpresa, erakunde, banku eta kontratistekiko tratuak eta akordioak ere erdaraz.

Aspaldi samar sortu zen UEMA (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea), lan guzti-guztia euskaraz egiteko konpromisoarekin eta sortzen ziren arazoetan elkar laguntzeko asmoarekin. Goierriko lan herri jendetsuenak kenduta (Beasain, Ordizia, Lazkao, Olaberria), beste guztiek betetzen dituzte euskara hutsez funtzionatzeko baldintzak, eta hala ere gutxi batzuk besterik ez dira bertan sartu (Gaintza, Itsasondo, Zaldibia, Altzaga). Ezinikusi politikoak izan dira orain arte pauso horri ez emateko aitzakia, baina espero dut, eta hala eskatzen dizuet, Lizarrako giro berriarekin hor falta diren udal gehienak animatzea, ez bakarrik beren herri barruko euskara bultzatzeko, baita besteon akuilu eta adibide bat izateko ere.

Horrenbeste zor diegu, bai Goierrri euskaldunean bizi izandako gure arbasoei, bai (batez ere) euskaraz bizitzea opa diegun gure ondorengoei.

Xabier Mendiuren Elizegi



Zer iruditzen zaizu iraileko azterketak ekainan egin behar izatea?



Iñigo Murua

17 urte, ikaslea

beasaindarra

Sekula ez dut irailean azterketarik egin beharrik izan, baina suposatzen dut urte guztiko ideiak freskoago egongo direla ekainan. Eta honela uda guztia libre.

Iñigo Imaz

17 urte, ikaslea

Beasaingoa

Hobeto izango da, nahiz eta denbora gutxiago izan ikasteko. Uda guztia hobeto pasatzeko aukera emango du.



Juan Antonio Auzmendi

37 urte, irakaslea

lazkaotar Beasaineratua

Aprobatur gero ondo, aprobaten ez duena okerrago ibiliko da. Baina ekainan gaintitu ala ez, uda lasaiago pasatuko dute. Irakasleei agian, ekainan lan gehiago pilatuko zaie.



- Iragazkaiztekoak
- Montairu eta hormigoientzako gehigarriak
- Hormigoiaaren tratamenduak
- Dilatazio juntak
- Erretxinak

Senpere Merkatal Zentrua

1. solairua (3. zkia.) BEASAIN

☎ 943 88 9350 Faxes: 943 880688

LARRAITZ

Lurrindegia
Opari gaiak

Oriamendi Kalea ☎ 943 88 33 02
BEASAIN

GEMA

OINETAKOAK

Jai zoriontsuak !

Nafarroa Etorbidea,7
☎ 943 88 94 45 BEASAIN

A H O L K U L A R I T Z A

GOENAGA

ARANBURU

AHOLKULARITZA OROKORRA: laborala, soziala, fiskala, merkantila, kontablea.
GESTORIA: ibilgailuak, garraioak, berrikuntzak, eskriturak.

J. M. Iturrioz, 6
BEASAIN

Jai zoriontsuak denoi !

☎ 943 16 00 65
Faxes: 943 16 03 59

ZINEA

GOIENIZ:

Maiatzak 11, 'Asesinato', 21:30ean, Usurbe antzokian.

Maiatzak 13, 'Ricos y extraños', 21:30ean, Usurbe antzokian.

LEGORRETA:

Maiatzak 10, 'La boda de mi mejor amigo', 20:30ean, Herri Zineman.

Maiatzak 17, 'Torrente, el brazo tonto de la ley', 20:30ean, Herri Zineman.

Maiatzak 20, 'Los Simpson, muy fuerte para TV', 20:30ean, Herri Zineman.

ORDIZIA:

'Shakespeare in love'. Ostirala 7: 22:15; larunbata 8: 19:30 - 22:15; igandea 9: 19:30 - 22:15; astelehena 10: 19:30.

'Star trek. Insurreccion'. Igandea 9: 16:45.

HITZALDIAK

ITSASONDO:

Maiatzak 7, 'Erremedio naturalak' gaiari buruzko hitzaldia, 18:30ean, udaletxean.

BERTSOAK

BEASAIN:

Maiatzak 18, Sebastian Lizaso, Mikel Mendizabal, Andoni Egaña eta Mikel Aranburu, San Martin plazan, 13:00etan eta 19:30ean.

ITSASONDO:

Maiatzak 8, J.M. Irazu, M. Lujanbio, A. Egaña, I. Lazkano, I. Elortza eta Alaitz Sarasola, Errota pelotalekuan, 22:30ean. Gai-jartzaila: Nikolas Zeberio.

LEGORRETA:

Maiatzak 13, J. Agirre, A. Egaña, S. Lizaso, M. Lujanbio, A. Mendiluze eta A.M. Peñagarikano. 22:30ean, Herri Zineman.

ZALDIBIA:

Maiatzak 14, 'Xalbador bat-bateko mirakulua' saioa, Xabier Amurizak eskainita. Antzokian, 22:30ean.

ANTZERKIA

BEASAIN:

Maiatzak 16, Sasietaren kanpainako kale-antzerkia, 18:00etan.

Maiatzak 18, Sasietaren kanpainako kale-antzerkia, 10:00etan.

LEGORRETA:

Maiatzak 14, Sasietaren kanpainako kale-antzerkia, 17:00etan.

ORDIZIA:

Maiatzak 12, Sasietaren kanpainako kale-antzerkia, goizean, azokan.

MUSIKA

BEASAIN:

Maiatzak 16, Kepa Junkera, Bideluze plazan, 23:30ean.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Maiatzaren 30era arte, Olatz Goibururen pintura erakusketa, Aterpe tabernan.

Maiatzan zehar, 'Hain aspaldi dok ala?' erakusketa, Zinema tabernan.

ORDIZIA:

Maiatzaren 28ra arte, Eugenio Ortizen pintura erakusketa Barrenan.

IKUSENTZUNEZKOA

LAZKAO:

Maiatzak 12, 'Antton eta Gaizka, bide berria Patagoniako Paine dorreetan', Maizpiden 21:00etan.

MENDI-IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Maiatzak 9, Arantzazu-Malkorra.

Ordiziako mendizaleak:

Maiatzak 9, Zerain-Arantzazu.

Maiatzak 15, Andazarreta - Mandubia.

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



MUJIKA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



✕ LEIHOAK, ATE-
AK eta abar

✕ ESKAILERAK
NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

Altzagarateko jaiak

Maiatzaren 16an ospatuko dira Altzagarateko jaiak. Altzagarateko Udalak prestatu duen egitaraua duzue jarraian:

12:30ean: Meza Nagusia.

13:30ean: Andoni Egaña eta Millan Telleria bertsolariak. Ondoren, trikitilariak, Ansorregi taldearekin.

14:30ean: Bazkaria bertako tabernan.

18:00etan: Aizkolari saioa: Azurmendi Aierberen aurka. 10 kana erdiko enbor ebaki beharko dituzte.

Ondoren: trikitilari eta bertsolarien bigarren saioa.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

☐ Txakurkumeak oparitzen dira, boxer eta pastor belga arteko kruzeoak. Julien. 943 672909.

☐ Akordeoia salgai. Pignini-Convertor 42 B. Erdi prezioan. 943 465724.

☐ Cocker Spaniel ingelesa eskaintzen da arraza hobetzeko. Pedigree onekoa. 943 886164.

☐ Gas-Gas 350 trialeko motorra salgai. 95. urtekoa. Oso gutxi erabilia. 943 886217. Silvia. Iluntzean deitu.

☐ Zilar koloreko Monty bizikleta salgai. Nahiko berria eta ondo zaindua. Prezio interesgarria. 943 889634.

☐ Opel Omega CD, SS-X, kotxea salgai. Urdin metalizatua. Kristal jasogailu elektrikoa. Itxiera zentralizatua. ABS. 4 atekoa. Gasolina, superra, berunik gabea. Kaseta opari. 575.000 pezetan. 943 161072. Jesus Mari.

☐ Motorra salgai: Mecatecno. 49 cc. Jon. 943 690721. Iluntzetan deitu.

☐ Ford Escort XR3 salgai, despiezerako. 943 88 8081. 13:00etatik 13:45era deitu.

☐ Bi kanpin-karro salgai. Egoera onean. Oso erraz montatzen dira. 943 883724. 19:00etatik aurrera deitu.

☐ Compaq ordenagailua salgai. Prozesadorea eta pantaila, biak bat. Oso leku

gutxi behar du. Prezio onean. 14:00etatik aurrera deitu. 943 187364.

☐ Estetikako aparagailuak salgai. 943-885513. Arratsaldean edo gaez deitu.

Lana:

☐ Pertsona helduak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko 28 urteko neska eskaintzen da. Esperientziaduna. Interesatuak dei 943 160126 telefonora

☐ Eskusoinuak konponatzen ditugu. Marka eta modelo guztiak. 943 4700001. 17:00etatik 19:00etar deitu, ostegunetan izan ezik.

Bestelakoak:

☐ Ikaztegiako Zubiaurre tabernaren aurrean giltza sorta bat aurkitu zen eta herriko Udaletxean daude. 943 653329.

☐ Düsseldorf aupair bezala lan egiteko norbait behar da, hilabete batzuetarako. Beharrezkoa da oinarriko alemaniera jakitea. 670 737402 (Stefan).

APIRILEAN SALDUENAK

LIBURUAK:

- 1- Agirre zaharraren kartzalaldi berriak
Koldo Izagirre (Elkarlanean)
- 2- Berandu da gelditzeko
Unai Iturriaga (Susa)
- 3- Ipuin euskaldunak
Iban Zaldia (Erein)
- 4- Sugeak txoriari begiratzen dienean
Bernardo Atxaga (Erein)
- 5- Indiana Jonesen zamarra
Asun Balzola (Erein)

DISKOAK:

- 1- Mikel Urdangarin
'Badira hiru aste' (Gaztelupeko hotsak)
- 2- Urgabe
'Urgabe' (Gaztelupeko hotsak)
- 3- Soziedad alkoholika
'Zuzeneko' (Milagritos)
- 4- Koma
'El catador de vinagre' (Gor)
- 5- Idi bihotz
'Arimaerratu' (Oihuka)

Baga-Biga Kulturgaiak emandako zerrenda


GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Atorrasagasti (Bustuntza - Ordizia) 943882934.

Maiatzak 8-9, Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain), 943 880232..

Maiatzak 15-16, Lournaga (Kale Nagusia, 4 - Beasain), 943 881828.



Garbitasunak

OXEPÍ

☎ 943 88 96 67 **ZALDIBIA**

IKASTEK AKADEMIA

Hezkuntzako profesionalak goierritarren zerbitzuan

☎ 943 160 120
Joan Iturrilalde, 5
BEASAIN

Unibertsitate maila:

- ✓ Ingeniaritza Teknikoa
- ✓ Enpresa zientziak
- ✓ Kimika

Langileentzat:

- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Nominak
- ✓ Fakturazioa...

Oposaketen prestaketa:

- ✓ Nola landu
- ✓ Test-ak
- ✓ Psikoteknikoa

Hautoprobetako azterketak:

- ✓ Eskola graduatua
- ✓ lanbide heziketa
- ✓ Selektibitatea
- ✓ 25 urtetik gorakoentzat

Ingurugiro Kimika ikasketak Goierrin

Azken urteotan aldaketa handiak gertatu dira bigarren hezkuntzan; besteak beste, heziketa zikloen ezarpenari esker, lanbide heziketan eragina izan dutenak. Heziketa ziklo hauen berri jakin nahian, Txindoki-Alkartasuna instituturara hurbildu gara eta bertan ematen direnei buruz elkarrizketa hau izan dugu bertako zuzendaria den Josu Agirrerekin.

- Esango al diguzu zer diren heziketa zikloak eta zer aldaketa eman diren zuen institutuan hauen ezarpenarekin?

- Heziketa zikloak LOGSEK sortutako Berariatzko Lanbide Heziketaren etapa bat dira. Heziketa zikloek azken urte hauetan lan munduan eta gizarte mailan sortu diren erroren erantzun nahi diete, horretarako lanbide heziketaren eskaintza hobetu, egokitu eta zabalduaz. Heziketa dinamikoagoaren, malguagoaren aldeko apustua da. Gu orain dela urte batzuk sartu ginen erreforman, gure eskola-eskaintza zabalduz. Ordutik, ikasleak unibertsitateko prestatzeaz gain, lanbide heziketako ikasketak ere ematen ditugu, hain zuzen ere, kimika familiako heziketa zikloak.

- Zein heziketa ziklo ikas daitezke Txindoki-Alkartasuna institutuan?

- Gaur egun bi ziklo: **Ingurugiro Kimika** (Goi mailakoa. Batxilergoa, UBI edo IEE gaingitu ondoren sar liteke edota 20 urtetik gorakoentzako froga gaingitu ondoren). **Laborategia** (Erdi mailakoa. DBH, BBB 2, IEE le-



*Titulaziorik ez dutenentzat sarrera-frogak
Goi Mailako Heziketa Zikloak: 20 urtetik gorakoentzat.
Erdi Mailako Heziketa Zikloak: 18 urtetik gorakoentzat.
Izenematea: maiatzaren 17tik 21era*

henengo zikloa edota 18 urtetik gorakoentzako froga gaingitu ondoren sar liteke).

Etorkizunean gure eskaintza lanbide heziketako beste familia batzuetara zabaltzeko asmotan gabilta.

- Zer lan egin dezake Ingurugiro Kimikako Goi Teknikari batek?

- Edozein enpresak sor ditzakeen hondakinen (airera egindako igorpenak, uren arazketa eta hondakin solidoak) kudeaketa eta trataeraz arduratzen da; horretarako, Europako Elkartea sortzen ari den legegia kontuan hartuaz. Kudeaketa honen helburu nagusia ingurugiroa hobetzea da. Teknikari hauek beren lana arlo ezberdinetan

egin dezakete: enpresetan, ingurugiro aholkularitzetan, administrazioan...

Gainera, heziketa ziklo hau gaingitzen dutenek sarbide zuzena dute unibertsitateko hainbat karreratan, hautapoben beharrik gabe.

- Zenbateko iraupena du Goi Mailako ziklo honek?

- Guztira 1.400 ordukoa da. Hau da, ikasturte osoa gehi hiru hiruhilabete bat. Azken hiruhilabete honetan lantokiko prestakuntza egiten da; praktika hauek derrigorrezkoak dira, ezinbestekoak titulua eskuratu ahal izateko.

- Zein enpresatan egin daitezke ingurugiro ikasketekin zerikusia duten praktikak?



Ni Alaitz Imaz naiz eta Ingurugiro Kimika ikasketak egin ditut Txindoki-Alkartasuna Institutuan. Goi mailako ziklo formatibo hau aukeratzeko nire arrazoirik nagusienerakoa, gaur egun ingurugiroa geroz eta indar handiagoa hartzen ari delako izan zen eta etorkizunari begira pil-pilean egongo den gaia delako; batez ere, gizarteak (eta ondorioz, industriak) ingurugiroaren babesaren kontzientzia geroz eta handiagoa duelako.

Oso interesgarria da, zikloek enpresatan praktikak egiteko aukera ematen baitizute. Honela ikasitakoa praktikan jartzeaz gain, enpresa mundua ezagutzeko aukera paregabea duzu. Nire kasuan, Idiazabalgo JASO, Equipos de Obras S.A. enpresan aritu naiz. Oso giro ona eta jarrera egokia aurkitu nuen nireganako. Izan ere, enpresentzat ere gaia ezezaguna eta berria denez, interes handia jartzen dute; eta ondorioz, praktikak egiten ari zaren bitartean bi alderdiek ikasten dute, enpresak eta ikasleak.

- Era askotako enpresa izan daiteke: industria mailakoa, zerbitzuetakoa, administrazioan... Guk industria mailako enpresak hobetsi ditugu praktikak antolatzerakoan, gure ikasleentzat aukera egokiagoak eskaintzen baitzituzten.

Gutxi gora-behera hiru hilabetetan, ingurugiroarentzat arriskutsuak edo kutsakorrak izan daitezkeen hondakin edo materialen kudeaketaren eta planifikazioaren inguruan egiten dituzte praktikak. Hemendik, eskerrik zintzoenak eman nahi nizkieke praktika horiek erraztu dizkiguten enpresei: CAF, Estanda, Orkli, Jaso, Ederfil, Gelman, Sasieta mankomunitatea, GSB, GKN, IFAM, Goizper, Bakelite, Egoki, Porcelanas de Bidasoa, Inasmet, Geolan, Lapatx zaborte-gia... Beraietan egindako praktikei esker gure lehen promozioa lan-munduan sartzen ari da.

Bestalde, praktika hauen bidez ezagutu dugu ingurugiro kudeaketaren kontzeptua zabaldu egin behar dugula, kalitateari eta segurtasunari garrantzi handiagoa emanez. Enpresek behar jakin batzuk aurkeztu dizkigute eta guk beraien beharretara hurbildu nahi dugu, ikasketei ikuspegi orokorragoa eskainiz.

- Zerbait gehiago erantsi nahi duzu?

- Gure asmo nagusia eskaintza berri honi buruzko informazioa ematea izan da eta balarako gazteak animatu egin nahi ditugu ikasketa berri hauetara hurbil daitezen, guztion ardura baita ingurugiro garbi eta bizitzeko egokia lortzea. Nolanahi ere, beste edozein informazio nahi duenak badaki non gauden. Ugartemendi, 6. Beasain. Tlf.: 943 88 07 53.

ERREZETA



Pietro Silenzi
Martini
Arrizar bodegoia
Beasain

OILASKO ENTSALADA

Osagaiak: letxuga, oilaskoa, maionesa, esnegain likidoa eta soja edo soja saltsa.

Oilaskoa egosi. Bai oilaskoa, bai letxuga, juliana eran ebaki.

Bestetik, saltsa egiteko, maionesa, esnegain likidoa eta 2 edo 3 tanta soja saltsa nahastu.

Saltsa oilaskoarekin eta letxugarekin nahastu eta hozkailuan sartu. Freskoa zerbitzatzen da.

Salda egiteko erabiltzen den oilaskoa aprobetxatzeko era bat da erreze-ta hau.



Pello Barandiaran
Gertu aholkularitza

Jabego Horizontalaren legeak, aldaketa ugari jasan ditu historian zehar. 1960. urtean atera zen eta 1988 eta 1990. urtean etorri ziren lehenengo aldaketak. Ahaleginak ahalegin bi arazo nagusiri konponbiderik ez zitzaien eman bi aldaketa hauetan; bata ordaintzen ez zuten bizilagunekin zer egin, eta erabakiak hartzeko garaian beharrezkoak ziren gehiengoak sortzen zituzten arazoak bestea.

1999ko apirilaren 6an atera zen lege berria eta indarrean apirilaren 28an sartu zen. Bi arazo hauei irtenbidea ematen saiatu da lege hau, beste zenbait puntutan aldaketak ekarri baditu ere.

Ordaintzen ez dutenekin zer?

Orainarte, komunitateko kuotak ordaintzen ez zituen bizilagunari hauek auzitegi bidez eskatzea posible bazen ere, auzi-sistemak berak dituen mugak direla eta

AHOLKUA

Bizilagunen arteko arau berriak

hau ez zen ez eroso ez merkea gertatzen. Honen aurrean, zorrak zituenaren aurka ezer gutxi egiteko aukera genuen. Lege berriak ordea, prozedura berri bat aurrikusten du eta berau martxan jartzeko bizilagunen batzarraren erabakia hartzea nahikoa da. Erabakia hartu ondoren epaitegira zuzenduko da eskaria, epaileak 20 egun emango dizkio zordunari ordaintzeko edo ez ordaintzearen arrazoia azaltzeko. Ez badu ezer erantzuten, epaia emango da eta bere ondasunen gain zorra kobratzea posible izango da. Auzi honetan abokatuak nahiz prokuradoreak parte hartuko balute (hauek derrigorrezkoak ez badira ere), zordunaren kontura joango dira.

Guzti honetaz gain, zordunak beste zenbait eskubide ere mugatuak izango ditu ordaintzen ez duen bitartean: - ezingo du komunitateko bileretan bere boturik eman; - ezingo du batzarren akordioan aurka joan; - etxea saltzeko garaian bere zorren egoeraren agiria aurkeztu beharko du, eta erostunak espreski bere gain hartzen ez baditu ez du etxea saltzeko aukerarik izango.

Gehiengoak

Zenbait gaien inguruan beha-

rezkoak diren gehiengoak aldatu egiten dira, era honetan, bizilagun guztien adostasuna gai mugatu batzuetan bakarrik izango da beharrezkoa. Lege berriaren 17. atalean arautzen dira gehiengoak.

- Guztien adostasuna beharrezkoa da jabego horizontalaren sorrerako araudia nahiz estatutoak aldatzeko; - igogailuak, atezaina, segurtasun sistemak eta orokorrean den intereserako diren zerbitzuak ezartzeko jabeen hiru bosterenen adostasuna aski izango da; - ezintasunen bat dutenentzat oztopagarri izan daitezkeen elementuak kentzeko erabakia hartzeko jabeen gehiengo nahikoa izango da, hauek aldi berean kuoten gehiengo badute; - telekomunikabide, gas... zerbitzuak ezartzeko, jabeen heren bat nahikoa izango da, ordainketa ere behariek egin beharko dutelarik; - gainerantzeko erabakiak hartzeko jabeen gehiengo aski izango da, jabeen eta kuoten gehiengoak izango dira beharrezkoak.

Beste hainbat gai ere arautzen ditu lege berri honek, guztiak ere bizilagunen artean sortzen diren hainbat ika-mikari irtenbide azkarrago bat emateko asmotan.



ILEAPAINDEGI
MISTOA

Festa onak pasa!


Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arte)
Tfnoa.: 943 16 11 05 **BEASAIN**

Jai zoriontsuak!

PUB

ASTI

Zaldizurreta kalea
943 88 45 06 **BEASAIN**



Ondo pasa festetan!

LOPETEGI

AUTO ESKOLA

GIDABAIMEN MOTA GUZTIAK

Igartetxe, 2
Oria Kalea, 14

943 88 21 74
943 65 11 17

BEASAIN
TOLOSA

Antton Garcia de Molino

68 urteko Ordiziako presoak 18 urte daramazki kartzelan eta zigorraren 3/4a bete dauka dagoneko. Aldakako gaixotasuna dauka berak eta bere askatasuna eskatzeko mobilizazioak egiten ari dira Ordizian. Maiatzaren 2an manifestazioa egin zen Ordizian.

Indarren lehen zutabea

Beasaingo Indar enpresak lantoki berriaren lehen zutabea jarri zuen apirilaren 30ean. 3.500 milioi pezetako inbertsioa egingo du Indarrek lantoki berrian. Beasaingo Jaron egingo da enpresa berria. Besteak beste, Josu Jon Imaz Jaurilaritzako Industria kontseilaria, Roman Sudupe Gipuzkoako Diputatu Nagusia eta Xabier Arza-luz EAJko lehendakaria izan ziren gonbidatuak.

Irizarrek Mexikon lantegi berria

Ormaiztegiko Irizar kooperatibak Mexikon lantegi berria ireki du. 2.000 milioi pezetako inbertsioa egingo du horretarako eta hiru urteren buruan 7.000 milioi pezetako fakturaztea espero du, egunean lau autobus eginez. Denan den, lehenengo fasean bi autobus egingo dituzte eta piskanaka lau ekoizteraino iritsiko dira. Urtearen amaierako autobusak egiten hastea espero dute Irizarrekoek. Hasieran 100 lanpostu sortu dira. Century eta Intercentury modeloak egingo dituzte. Mexikoko Queretaro hirian kokatuko da lantegi berria. Mexikokoa Irizarrek munduan irekitzen duen laugarrena da: 1995ean Txinan, 1997an Marokon eta 1998an Brasilen. Hurrengo helburua India omen da.

Iaren biltzarra

Ikasle Abertzaleak taldeak 3. Biltzar Nazionala ospatuko du Agurainen, maiatzaren 7tik 9ra. Iaren esanetan, garrantzitsua izango da biltzarra, "une erabakiorrak baitira Euskal Herriarentzat. Herria mamitu eta eraikitzeke garaia da: beste hainbat alorren artean irakaskuntzan eredu euskalduna, herritarra eta aurrerakoia eraikitzea dagokigu". IAK irakaskuntza euskalduntzeko lana egingo du eta horretarako "ikasle uholde bat sortu behar du".

UEMA eguna

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak beraien eguna ospatuko dute Zeanurin (Bizkaia), maiatzaren 16an. Goierriko 4 herri daude UEMAREN barruan: Itsasondo, Zaldibia, Alzaga eta Gaintza.

Joxe Arratibel

Joxe Arratibel atandak bere hiru garren ipuin liburua kaleratu du, Erein argitaletxearen eskutik: 'Kontu zaharrak'. 75 urte ditu Arratibelek eta haurra zelarik bere aita, aitona edo inguruko ahotik jasota bezala kontakizunak paperean jartzen saiatu da.

Patxi Zubizarreta

Ordiziar idazleak 'Usoa, hegan etorritako neskatoa' eta 'Elur beltza' liburuak kalera-tu ditu, Erein argitaletxearekin. Lehen ipuin liburua euskarazko edizioarekin batera, katalanez eta gaztelaraz ere argitaratua izan da.

Lazkao Txiki

Lazkao Txikiren 'Gertaerak eta txistek' liburua argitaratu du Sendoa argitaletxeak. 'Irriz eta malkoz' izeneko bi liburuko bilduma zabaleko zati bat da eskaintzen dena.

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

*Edergintza eta ileapaindegi
tratamendu guztiak*

Iturtxo, 5 ☎ 943 16 22 56 **ORDIZIA**

ZALBIDE
SAGARDEGIA
Arraiak parrilan



☎ 943 65 21 76 **ABALTZISKETA**

EROSKI
KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 943 88 27 93 **ORDIZIA**

OSKARBI
OINETAKOAK



*Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.*

Kickers

K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 **ORDIZIA**



GESTORIA Biok
Errenta
aitorpenak
egiten dira

**Goierri, 12
behea**

ORDIZIA

☎ 88 44 00
88 12 58

KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. **BEASAIN**

Legorretako jaiak maiatzaren 12tik 16ra

Maiatzak 12, asteazkena:

19:15ean: jaiei hasiera.

19:30ean: Buruhandiak eta kalejira dultzainariekin.

21:00etan: Lagunarteko afa-ria Bilkoinen.

Ondoren: dantza saioa Iraunkorrek txarangarekin.

00:00etatik 02:00etara: Jazz emanaldia Ataungo Banda Popularra taldearen eskutik.

Maiatzak 13, osteguna: Azintzio eguna:

10:00etan: Diana dultzainariekin.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Kalejira 'Eneritz eta Naiara' bikoteak lagun-dua.

12:30ean: Herriko soinu- jole eta dantzari gazteen saioa.

18:00etan: Buruhandiak eta trikitixa 'Eneritz eta Naiara' bikotearekin.

18:30ean: Futbol partidua kirol gunean.

19:00etan: Erromeria 'Eneritz eta Naiara' trikitilarien eskutik. Ordu berean, sagardo dastaketa eta txorizo jatea, kirol gunean.

20:00etan: Bilkoin eta Jota-Kea elkarten arteko V. Pilota txapelketa.

22:30ean: Bertso jaialdia Herri Zinemari: Joxe Agirre, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Angel Mari Peñagarikano.

00:30ean: Egan.

Maiatzak 14, ostirala:

10:00etan: Diana dultzainariekin.

10:00etik 13:30era: haur jolas- tokia kirol gunean.

12:30ean: pote, igel eta toka txapelketa jubilatuen artean.

14:30ean: Zikero jatea Bilkoinen, Iraunkorrek txaranga- gak alaitua.

15:00etik 17:00etara: haur jolas- tokia kirol gunean.

17:00etan: Kale antzerkia, Behi Bi's taldearekin.

19:00etan: haurrentzat play back saioa.

23:00etan: helduentzat play back saioa.

00:30ean: Elkar taldearekin dantzaldia.

Maiatzak 15, larunbata:

10:00etan: diana dultzainariekin.

11:00etan: haur jolas- gatzetxoentzat.

13:00etan: Txakolin dastaketa Iraunkorrek txaranga- gak alaitua.

13:00etan: herriko XVII. Paella txapelketa.

14:30ean: Lagunarteko herri bazkaria plazan.

18:00etan: judo erakustaldia herriko gaztetxo- en eskutik.

23:30etan: Drindots.

01:30etik: mo- zorro lehiaketa- ren sari- banaketa.

Maiatzak 16, igandea:

10:00etan: diana dultzainariekin.

12:00etan: buruhandiak 'Eneritz eta Naiara' trikitilarien-ekin.

13:00etan: herriko haur- ren arteko pilota partidua.

14:30ean: herri-kirolak: aiz- kolariak: Aitor Esnaola (Euskadiko III. mailako txapelduna); J. Manuel Era- sun (segalaria eta aizkola- ria). Insausti Harria Euska- diko III. saria.

18:00etan: Iraunkorrek txaranga.

19:30ean: haur- ren danborra- da.

Ondoren: Gizon Pikuaren ehorz- keta.

eredu S. Coop.

Lorategietarako
eta hondartzarako
altzariak

Diseinuko altzari
modernoak

Jai zoriontsuak denoi!

Ola auzoa,4 LEGORRETA

☎ 943 80 61 00 - Faxe: 943 80 63 74



Xabier Agirre: "Barre eginaraztea dut gustukoena"

Xabier Agirre. 35 urte. Legorretarra. Aktorea. Orain enpresarioa ere bai, Txalo produkzioan. Antzerkian lan asko egindakoa. 1990ean aktore onenaren saria eman zioten Azpeitiako topaketetan, 'Jaques eta Nagusia' antzezlanean egindako lanagatik. Azkenaldian Goenkalen parte hartzen du, Xantiren paperean.

Aktoreak sortzeko Eusko Jaurlaritzak antolatutako Antzerkin ibilia da Xabier Agirre. Handik Bederen 1 taldea sortu zen eta antzezlan ugari egindakoa da legorretarra. 1996an, berriz, Agatha Christieren 'Xagu tranpa' (euskarazko bertsioan) eta 'La ratonera' (erdarazko bertsioan) antzezlanak produzitzeko, Txalo taldea sortu zuten. Aktore lanaz gain, enpresario lana ere egiten du Xabierrek. Ane Gabarain, Pilar Rodriguez, Maribel Arrieta, Alex Furundarena, Manuel Mendiaraz eta Fermin Sanles dira

gainerako taldeki-deak.

Hiru urte darimazkitez antzerki obra honekin, 500 emanaldi taularatu dituzte, Euskal Herrian eta Espainiar Estatuan. Londresen, antzerki lan hau, 47 urtean ari dira antzezten. "Ez genuen uste horrelako arrakastarik izango genuenik. Espainian izan dugu arrakasta ere izugarria izan da. Lehen tarteka sortzen ziren Espainian emanaldiak han eta hemen, baina obra honekin, hiriburu eta antzoki garrantzitsuetara joaten ari gara, herri txikiak ere bai. Antzokiak bete egiten dira eta taldea eta aktoreak ezezagunak eta euskaldunak gizona kontutan izanda, ez genuen horrelakorik espero".

Xabier Agirrek aitortu digunez gainera, Euskal Herrian baino harrera hobea izan dute kanpoan. "Eta Euskal Herrian euskarazko bertsioak baino arrakasta handiagoa izan du erdaraz-



koak. Zergatik izan ote daitekeen? Arrazoirik ez dakigu, baina agian ohitura falta handiagoa daukagu euskaldunok antzerkira joateko. Guk uste genuen arrakasta parekoa izango zela, kontutan izanda gu aktoreok euskaldunen artean gara ezagunagoak, baina ez da horrela izan".

Oso osasuntsu

Euskal antzerkigintzaren osasuna oso ona dela esan digu legorretarrak. "Profesio ingurune oso profesionala jaiotzen ari da. Ez aktore eta zuzendariak bakarrik, baita azpiegitura aldetik ere. Abentura izatetik orain en-

presa mundu bat da antzerkia. Bakoi-tzak bere finantza-keta aurkitu behar du, erosleak, saltzaileak... Aktoreak, zuzendariak, idazleak... askoz ere prestatuagoak daude. Banatzaileak edo distribuidoreak sortzen ari dira. Arlo guztietan asko egonkortzen eta profesionalizatzen ari gara".

Katalanak aintzindari omen dira horretan, baina azken urteotan Estatuan egindako antzerki obra indartsuenak euskaldunek egindakoak omen dira. Ur, Tanttaka eta Txalo taldeen lanak esaterako. "Momentu honetan Espainia guztian antzerki obrarik garrantzitsuenak ia-ia talde hauenak izan dira".

Telebista

Antzerkian egin du lanik gehien Xabier Agirrek. Telebistan tarteka azaldu izan da. Momentu honetan Goenkalen ateratzen da. Zinean ezer gutxi egin du eta aukeraren

GOIHERRI, S.A.
PAPERAREN MANIPULAKETA

'Jai zoriontsuak denoi'

San Migel, 7
Tfnoa.: 943 80 61 90
LEGORRETA

GUADALUPE
JATETXEA

Festak ondo igaro!

Guadalupe auzoa
☎ 943 80 63 85 **LEGORRETA**



Sagardotegia

aulia

Aulia-enea
☎ 943 80 60 66 **LEGORRETA**

baten zain dago, "asko gustatuko litzaidake zinea egitea", dio.

Antzerkian lan gehiago egindakoa izan eta telebistatik famatu egitea tristea ez ote den galdetu diogu legorretarrari. "Hori betikoa da. 20 urte antzerkian arrakasta izanez lan egin eta telebistan ikusten ez bazaituzte, dagoe-neko lanik ez duzula egiten uste du jendeak. Eta astebate telebistan ateraz gero, lan eta lan ari garela uste dute. Telebista beste difusio bat da. Piztu eta etxean sartzen da. Antzerkira berriz, joan egin behar da, ordaindu egin behar da..."

Baina telebistak gauza on asko dauzka Xabierren ustez. "Hasteko, diru gehiago irabazten da. Bestetik, erosoa goa da; telebistan Miramona joan eta kitto, obra bat antzeztera berriz, autoan kilometro asko egin behar dira. Telebistak daukan txarre-na da, abiadura handian egin behar dela lana".

Xanti

Goenkaleko Xantiren papera egiten du Xabierrek. Primeran pasatzen omen du grabaketetan. "Donostian bizi naiz eta Miramonera igo eta han grabatzen dut. Testuak nahi-



- Normalean 'xelebre' edo 'tonto samarren' papera egin izan duzu telebistan.

- Ez dakit zergatik jartzen dizkidaten horrelako paperak, baina seguru niri doakidan papera dela. Nire komizidadea alde horretatik atarra da. Antzerkian denetariko paperak egin izan ditut baina egia esan batzuk hobeto joaten dira besteak baino. Ni barre eginarazten sentitzen da gustoen, xelebrekeriak egiten. Esker onekoa da.

- Aktore batentzat zer da zailena?

- Aktore ona izan eta mantentzen jakitea. Komunikatzaile ona izan behar da. Jendeak sinistu egin behar du egiten ari zarena. Eta mantentzea ere zaila da. Arrakasta daukazu-nean gehiegi ez igotzea eta lanik ez daukazu-nean beheragi ez joaten jakin behar da.

- Euskaraz ala erdaraz moldatzen zara hobeto?

- Niri euskaraz errazagoa egiten zait. Hala ere

orain nik uste erdaraz ikasten ari naizela. Garai bateko gure erreak, eseak eta zetak entzutea... Azentua badaukagu baina egitearen poderioz hobetzen ari gara.

- Antzerkian zein paper gustatuko litzazuke egitea?

- 'Jaques eta nagusia' niretzat apropos idatzitako lana izan zen hura. Gustatuko litzaidake berriz ere horrelako pertsonaiaren bat harra-patzea. Abentureroa zen, Cirano de Bergerac bezalakoa. Zinean, telebistan edo antzerkian pertsonaia historiko potente bat antzeztea gustatuko litzaidake; Cirano de Bergerac bat esaterako.

- Antzokirik, herririk gustokoena?

- Galizian oso publiko zoragarria aurkitu dugu. Hasieratik entregatzen dira. Donostian adibidez jendea oso hotza da. Donostiako Antzoki Zaharra asko gustatzen zait.

- Eta Legorretako antzokia?

- Han hasi ginen antzerkia egiten, 80ko urte haietan. Play-backa egiten uste dut gu hasi ginela. 1979an Orkestra Mondragon antzeztu genuen. Hasi berriak ziren eta Javier Gurrutxaga imitatzen genuen. Beste urte batean, Cabaret bat egin genuen. Lan asko hartzen genuen, oso landuak izaten ziren saioak. Badaukat lagun bat berriz ere horrelako zerbait egin behar duguna esaten didana, baina orain herri guztiak hartzen du parte, baina beste urteren batean, auskalo.

ko errazak dira ikasteko. Pertsonaia ahalik eta dibertigarriena egiten saiatu naiz eta nik ahalik eta ondoen pasatzen".

Pertsonaia berezia da Xantirena. Erraz moldatu omen da bere paperera. Ibil-kera, hizkera, keinuak... ez daki nondik jaso dituen. "Nire amak ere horixe esaten

dit: 'nondik hartu dituzu kei-nu horiek?'. Egia esanda, inkonszienteki izan da. Ez da gauza pentsatua izan. Gauzak ateratzen joaten zaizkit".

OLASO Taberna

Giro jatorra

Guadalupe Auzoa

LEGORRETA ☎ 943 80 63 55

ARANTXA

TABERNA-k

jai zoriontsuak
opa dizkizue!

Kale Nagusia LEGORRETA

ARIZPE LANTEGIA

Pedro Mujika

Soldaketa elektriko eta
autogenoan lanak

☎ 943 80 60 98

Eguzki Etxea LEGORRETA

M LASA
egurrak

Ondo igaro festak - Zorionak!

© 943 80 60 22 - faxa: 943 80 65 56

Beroztegi auzoa LEGORRETA

IÑAXI

Tabernak

jai zoriontsuak opa dizkizue!

☎ 943 80 61 20

Nagusia, 8 LEGORRETA

PIKONDO

TABERNA-k

festa zoriontsuak opa dizkizue!

Guadalupe auzoa

☎ 943 80 62 71 LEGORRETA

Agitaraua



Maiatzak 14, ostirala:

16:30etan: Aldibereko Xake-txapelketa handia, Gernika pasealekuan.

19:00etan: Erraldoi eta Kili-kien irteera txistulariekin eta Musika Eskolako musika-bandarekin, Loinazko San Martin plazan.

21:00etan: Loinatz, Loinatz Txiki eta Musika Eskolako abesbatzen kontzertua, Andre Mari Zeruratuaren parrokian.

22:30ean: Mariren jaitsiera, San Martin plazan.

23:00etan: Goierriko (Beasain eta Ordizia) erraldoi eta kiliki-taldearen irteera Koskola txarangak eta Hortzmuga taldeak 'Kolorre' ikuskizunarekin.

23:00etan: 'Guinness' musika-taldea Bideluze plazan.

Maiatzak 15, larunbata:

10:00etan: Meza, Loinazko Andre Mariaren ermitan.

10:00etan: Areto-futbola: mutilen Gipuzkoako txapelketako finalerdiak (infantilak), kiroldegian.

11:15etan: Areto-futbola: nesken Gipuzkoako txapelketako finalerdiak (infantilak), Antzizar kiroldegian.

12:00etan: Umeen danborrada, Ezkiaga etorbidean.

16:00etan: Loinatz Eskuzko pilota-txapelketa, Antzizar kiroldegian.

17:30etan: Haurren tailerra, Joan Iturralde plazan.

18:00etan: Danborradako konpainien irteera.

19:00etan: Koskola txaragaren irteera.

22:30ean: Helduen danborrada.

00:00etan: Danborradako konpainien bilkura Koskola txaragarekin eta Musika Eskoalko musika-bandarekin, San Martin plazan.

00:30ean: Nafar jotzen jaialdia 'Voces navarras' taldearekin, San Martin plazan.

00:30ean: 'Los ratones kolaras' musika-taldea, Bideluze plazan.

Maiatzak 16, igandea:

10:00etan: Kalejira txistularien Udal-bandarekin.

10:00etan: XXIX. Loinazko San Martin Nazioarteko Xake-jokaldiak, Ezkiaga Auzo Etxean.

11:00etan: Landare eta sendabelarren erakusketa, Zubizumuzu plazan.

12:00etan: 'Barea' marrazki lehiaketa, Joan Iturralde plazan.

12:00etan: 'Beasaingo Hiria' izeneko argazki-lehiaketako erakusketa eta sariematea, Usurbe Antzokiko erakusketa-aretoan.

13:00etan: Udalbatzaren soka-dantza, Loinazko San Martin plazan.

mujika

OINETAKOAK

Nafarroa Etorbidea, 11

© 943 88 27 16 BEASAIN

Goierri

Taberna
Jatetxea

Jai zoriontsuak guztioi!

Kale Nagusia, 18


© 943 88 00 00

BEASAIN

- Esku lanak
- Hastaroak
- Opariak
- Enmarkazioak


© 943 65 55 77 © 943 88 40 56
Nafarroa Etorb., 10 Andra Mari, 5
TOLOSA BEASAIN

ETXEBE TABERNA



Festa onak pasa!

Zaldizurreta kalea
BEASAIN



Jai
zoriontsuak
denoi!

MARIAN LARREA
BARNE DEKORAZIOA

- ✕ ERREFORMAK
- ✕ PROIEKTUAK
- ✕ ESZENOGRAFIA

© 943 88 58 48 - 943 46 34 79
Oriamendi, 30 BEASAIN

18:00etan: 'Kollins clown' pailazoen emanaldia, Joan Iturralde plazan.

18:00etan: Kaleko antzerkia: 'Behi bi's' taldea.

19:00etan: Ostadar dantzataldea, San Martin plazan.

19:00etan: Herri-kirolak: talde arteko apustua, Igarzako parkean.

23:00etan: Su artifizialak Caballer enpresak eskainita, Igarzako jauregiaren atzeko zelaian.

23:30ean: Kepa Junkera, Bideluze plazan.

Maiatzak 17, astelehena:

8:00etan: Udaleko txistulari-bandaren goizeresia.

9:00etan: Prozesioa Loinazko San Martinen baselizara, txistulari eta dantzariekin. Ondoren Meza Nagusia.

10:30ean: Erromeria usariozko taloak, erroskilak eta marraskiloak dastatuz, baselizaren inguruan.

10:30ean: Laguntaldearen arteko XXIII. futbol-txapelketako finalak, La Salle-San Jose ikastetxean.

11:30ean: Umeentzako parkea, Urbialde plazan.

13:00etan: Laguntaldearen irteera Oria eta Txalaparta txarangek alaituta.

16:00etan: Umeentzako parkea puzgarri eta bestelako erakargarriekin, Urbialde plazan.

18:30ean: Laguntaldearen bilkura eta jaitsiera Oria eta Txalaparta txarangek lagunduta, Barrendain plaza-tik abiatuta.

18:30ean: II. Laguntaldeetako brusa-lehiaketa.

19:30ean: San Inazioko laguntaldea Oria txarangekin igoko da Erretiratuen Etxera eta Arangoiti Agurren Egoitzara.

19:30ean: Akelarre taldea, Bideluze plazan.

20:00etan: II. laguntaldeen



tako brusa-lehiaketaren sari-banaketa.

23:00etan: Akelarre taldea, Bideluze plazan.

Maiatzak 18, asteartea:

10:00etan: Kalejira txistularien Udal-bandarekin.

10:00etan: Urteroko azoka berezia: barazki-lehiaketa San Martin plazan;azienda, hegazti eta artisautza lanen erakusketa, Joan Iturralde plazan; talo-dastaketa Zubimuzu plazan.

10:00etan: Kaleko antzerkia: Behi bi's taldea.

11:00etan: Umeen sokadantza, San Martin plazan.

12:00etan: Josune eta Aitziber Otegi trikitilarien joaldia, San Martin plazan.

13:00etan: Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Mikel Mendizabal, Andoni Egaña eta Mikel Aranburu, San Martin plazan.

19:00etan: Helduen sokadantza, Loinazko San Martin plazan.

19:30ean: Bertsolarien eta Josune eta Aitziber Otegi trikitilarien saioa, Loinazko San Martin plazan.

GSM GRAFICAS
san martin

Nafarroa Etorbidea, 41
Tfnoa/Faxa: 943 88 24 68
BEASAIN

MUJICA

DEKORAZIOA

© 943 16 00 54
Kale Nagusia, 20 BEASAIN

J. ARANBURU
Gizon, emakume eta haurrentzako
OINETAKOAK

Festa onak pasatu!

Kale Nagusia, 36
943 88 01 27 BEASAIN

RICKLER

✓ Ileapaindegia
✓ Edergintza
✓ Solariuma

JAI ZORIONTSUAK DENOI!

Nafarroa Etorbidea, 37
943 88 02 97 BEASAIN

Urkiola

© 943 88 03 19
Kale Nagusia, 7 BEASAIN

ARRANO TABERNA

Pintxo eta ogitartekoak



Jaietan ere preso eta iheslariak gogoan

Nagusia, 12
BEASAIN

Behi Bi's antzerki taldea: Sasietaren sentsibilizazio kanpaina buru belarri

Sasietak Mankomunitateak edukinontzi horiaren inguruko sentsibilizazio kanpaina berria jarri zuen martxan apirilaren 17an. Behi Bi's taldeak kale-antzerkia prestatu du okasiorako. Ane Garmendia beasaindarra eta Patricia Franco abadiñotarra dira protagonistak.

Era honetan, Beasaingo jaien barruan, hilaren 16an eta 18an Behi Bi's taldeak edukinontzi horiak nola erabili behar diren erakutsiko du herriko kaleetan zehar. Sasietak Mankomunitatearen eskutik, taldea osatzen duten bi pertsona, Ane Garmendia beasaindarra eta Patricia Franco abadiñotarra, plasti-

koak, latak eta tetrabrikak soilik bota behar direla eta zein modutan egin behar den gogoraraziko dute. Horretarako, Patricia, gezurretazko edukinontzi hori batean sartuko da, Anek, jendeari zaborrak eman eta berziklatzen erakusten dieten bitartean.

Behi Bi's taldekoek adierazi digutenez, ez da umeentzat zuzenduta dagoen saio: "helduentzako prestatua dago, beraiek baintira zaborrak edukinontziara botatzen dituztenak". Hala ere, jendearen erantzuna ezberdina izaten omen da, eta emakumezkoak dira normalago erantzuten dutenak. Haurrak dira gehien inguratzen zaizkienak, ibili egiten den edukinontzi hori bat eta goraka ia metro erdiko ile morea duen emakume bat



ikustera. Behi Bi's-ekoek argi utzi nahi izan dute, ordea, ez dela pailazo saio bat, "berziklatu egin behar dela jendea kontzientziazteko antzezlan bat baizik". Behi Bi's-ekoen antzezlanean parte hartzen dutenak saritxo bana jasotzen dute. Datozen hamabostaldiko emanaldiak non diren 6. orrian dituzue, Agenda atalean.

Sasietak kanpaina antolatzen zuten, Ane Garmendia eta Patricia Francok proiektua aurkeztu, eta onartuak izan ziren. Behi Bi's antzerki taldea 1992. urtean sortu zen. Antzerkia egiten dute eta horretarako txotxongiloek, ipuinez edo dantzez baliatzen dira. Beasainen behin baino gehiagotan egon izan dira taldearekin. Behin Akusa taldearekin Mirandolina lana antzetzuz Usurbe antzokian, eta gero Behi Bi's talde bezala Loinazpe ikastetxean eta Udal Liburutegian ere bai. ETBren Supernet saioan eta Arrasate Telebistan ere egin dute lan, eta Euskal Herrikan kanpo ere izan dira: Madril, Murtzia eta Lleidan. Orain urte amaierarako ere beste lan bat prestatzen ari dira.

Jon Ordoñez



ELECTRO ORIA

SALMENTA - ZERBITZU TEKNIKOA

Tfnoa. eta Faxe: 943 16 05 33
Kale Nagusia, 29 - BEASAIN



SATELITE BIDEZKO ANTENAK
TELEFONO MUGIKORRAK
AUTO-IRRATIAK

SATELITE VIDEO-HIFI
CANAL DIGITAL TB-ak

NAGASAKI
Taberna

Sartu zure giroan!

☎ 943 88 15 67

J. M. Iturrioz BEASAIN

KiTTō

Iturralde, 1 BEASAIN

ZORIONAK BEASAINDARROI!



Zaldizurreta BEASAIN



Proba
itzazu
"Beasaingo
Martintxoak"

GOZODENDA

Jai zoriontsuak!

Nagusia, 11
Nafarroa Etorb., 19
☎ 943 88 82 37 BEASAIN



Oinetakoak

Jai zoriontsuak denoi!

Laskurain, 12 San Inazio, 14
☎ 943 65 37 86 ☎ 943 16 04 34
TOLOSA BEASAIN

SEGURA

San Ixidro

Maiatzaren 15ean baserritarrek ezezik, kaletarrek ere ospatuko dute San Ixidro eguna. Arratsalde, buruhandi eta erraldoiak aterako dira herriko txistulariekin. 19:30ean, santuaren eguneko meza izango da kapillan eta ondoren ardo partiketa eta herri afaria trikitiaz alaituta plazan. Udalak mahaiak eta ardoa jarri izan ohi ditu eta norberak eraman jatekoa.

Santa Barbara

Asentzio eguna 13an bada ere maiatzaren 16an goizeko 9etan izango da Santa Barbara mendiko meza eta ondoren Udalaren laguntzaz eskainitako hamaiketakoa. Kortaberritarrek txukundua emana diote 728 metroko tontorrean dagoen ermita eta inguruari. Festa egunean traktorean igoko dituzte kafea eta hamaiketarako jan-edanak.

Jaunartzeak

Maiatzaren 9an, parroikiko 12:00etako meza nagusian lehenengo jaunartzea egingo dute Aritz Agirrek, Josune Antiak, Ander Egañak, Mirari Etxezarretak, Erik Garrok,

Maddi Gerrikok, Miriam Hernandok, Egoitz Juantorenak, Joseba Suarezek eta Jon Otegik.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Errejonak:** Segura 7-0 Tolosaldea. **Jubenilak:** Segura 1-2 Mondragon. **Kade-teak:** Segura 3-1 Behobia. **Infantilak:** Aizkorri 0-1 Arrasate.

Asteburuan 4 taldeek kanpoan izango dituzte partidua. Errejonak 2 partiduren faltan 2. daude Zumaia-korengandik puntu batera. Asteburu honetan Zarautzen jokatu dute Antoniotarren aurka eta azkenekoa San Ixidro egunean, etxean, Elgoibarren kontra.

Pelota

Intxaurrendoko finala: Castellanos eta Jon Ander Hombrek Alfaro eta Ibon Etxeberriari 22 eta 16 irabazi ondoren, maiatzaren 9an jokatu dute finala Etxaniz eta Garate azkoitiarren aurka.

Herri artekoa: Bergararren kontra bi txikienek galdu eta handienek irabazi egin zuten han eta hemen. Hu-

rrengo norgehiagoka bi aste barru izango dute zumarregarren aurka.

Kirol eskolarra

Tenisa. Neska alebinek ezin izan zuten Gipuzkoako finalera pasa. 4 eta 1 galdu zuten Donostiako Mary Wartekoen kontra.

Areto futbola. Udaberriko txapelketaren barne, maiatzaren 8an, 12:00etan, neska alebinak Seguran ari tuko dira eta mutil alebinak Zegaman.

Labur-labur

● **Beheko barrioko kirol probak:** maiatzaren 2ko jubilenen karrera Goierri taldeko Josu Agirrek irabazi zuen. Txirrindulari herriararren lehen saria Iban Paredesek eraman zuen. Maiatzaren 3ko auzotarren arteko tokan, emakumezkoetan Axun Gereñuk irabazi zuen eta gizonezkoetan Gurutz Goikoe-teak.

● Maiatzaren 7rako Amnistien Aldeko Gestorek Euskal Herri mailan antolatu duten **konpromezu eguna** dela eta, 19:45ean gizakatea osatuko da kaleetan zehar. Ondoren kontzentrazioa izango da plazan eta jarraian 24 orduko baraualdiari ekingo zaio, zapatuan egingo den beste kontzentrazio batez amaiera emateko. Segurako preso taldeak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu ekintza hauetara.

● **Herri Urrats.** Elorri Elkartek maiatzaren 9rako antolatu duen autobusa goizeko 8,30etan aterako da plazatik. Txartelak Elorripen salgai 1.000 pezetan.

● **Jubilatuak.** Maiatzaren 10ean eskualdeko mus, tute, puntu, toka, igel eta pote txapelketak izango dituzte Beasainen Atsedeneko txapeldun eta txapeldunordeak. Maiatzaren 20 aldera, berriz, jubilatuen txangoa izango da Nafarroa aldera.

Joseba Telleria



Joseba Auzmendi TVE torneooko txapeldun

Apirilaren 27an Uharteko Euskalen jokatu zen Udaberriko TVEko finalean, Altuna IIak eta Auzmendik 40 eta 32 irabazi zieten Matxin eta Iriarteri.



Gipuzkoako txapeldunak

Maiatzaren 2an Seguran jokatu zen bola finalean bikote mailako Gipuzkoako txapeldun geratu ziren Martxeliño Agirre eta Jokin Izagirre, 8 botalditan 185 birla jota. 2. Antonio Agirrek eta Jexux Mari Intxaustik egin zuten 175 birlarekin. Argazkian, txapeldunak eta txapeldunordeak.

Maiatzaren 1ean Legazpiko Danantzako bolatokian jokatu zen Santa Kruz saria Martxeliño Agirrek irabazi zuen 6 botalditan 36 birla jota.

ATAUN

Joxemiel Barandiaran eta euskal mitologiari buruz 'Lehenaren eta geroaren zubia' diaporama

Gaur ostirala, maiatzak 7, iluntzeko 8etan, Udaletxeko ganbaran aurkeztuko da 'Lehenaren eta geroaren zubia' diaporama. Aurkezpena udaletxean egingo bada ere, aurrerantzean San Gregorion proiektatuko da, eraberitutako eskola zaharretan egokitu den aretoan.

Hamabi minutuko iraupena duen emanaldi honekin euskal mitologiaren berri emanez On Joxemiel Barandiaranen irudia gerturatu eta azaldu nahi da, Ataun eta Aralarko ondare eta natur aberastasunak agertzearekin batera. Jentil, Sorgin, Mari, Gaueko, Azti, Martin Txiki, Kixmi... ezagunak ditugu. Horretan zerikusi handia izan du On Joxemielek bere bizitzako hainbat urte euskal mitologia eta historiaren ikerkuntzari eskaini izanak. Tamainako lanak merezi duen esker ona eskaini nahi dio Ataungo herriak bere seme kuttunari eta Euskal Herri osoari Joxemiel Barandiaran Interpretazio Zentrua sortuz.

Egitasmoaren neurria ikusirik, bai ekonomia aldetik baita zentruari eman beharreko eduki aldetik ere, zuhurtasunez jokatzeko beharra nabarmendu du Udalak. Hori dela eta, egitasmoaren gauzatzea epe desberdinetan eta zatika egitea erabaki da. Egitasmo honen ba-

rruan sartzen da beraz, gaur aurkeztuko den diaporama.

San Isidro eguna Aian

Azken urteetako ohiturari jarraituz, maiatzaren 15ean, San Isidro eguna, barazki lehiaketa eta gazta erakusketa antolatu du Udalak. Aurtengoan Aian ospatuko da.

Gazta erakusketan zein barazki lehiaketan herriko edonork har dezake parte. Barazkiak, gutxienez bost mota, norberarenak eta herriko lurretan haziak izan behar dira. Bakoitzak, jarritako postua erabili ahal izango du.

Saririk ere izango da. 20.000 pezeta irabazlearentzat eta 10.000 pezeta bigarrenarentzat. Honez gain, 15.000 pezetako 'ziza sari berezia' emango da. Animatzen zaretenok udaletxean aditzera eman behar duzue maiatzaren 12a baino lehen.

'Kablea Ataunen' liburuaren aurkezpena

Maiatzaren 14an, ostirala, Udaletxeko Areto Nagusian iluntzeko 8etan aurkeztuko du Lourdes Altunak bere liburua: 'Kablea Ataunen'.

Garai batean eta oraindik ere erabiltzen den teknika baten testigantza den lan honek, II. Ataun Aztergai Beka jaso zuen. Guztira 197 kable inbentariatu dira



Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak apirilaren 25ean Beasainen ospatu zuen XXXIV. Biltzarrean, domina jaso zuten artean ziren bost ataundara ere. Argazkian ezkerretik eskuinera: Jose Luis Gorostizu, Ataungo Odol Emaileen Elkartearen lehendakaria eta saria jaso zutenak: Virginia Martinez, Milagros Arza, Nikolas Goikoetxea, Ima Aramendi eta Felix Auzmendi.

Ataunen. Hauetatik egun erabiltzen direnak 17 baino ez dira. Beste 15, erabiltzen ez badira ere, oraindik ere kentzeko daude.

Lan bikaina egin du Lourdesek liburu hau osatzen: kablearen historia, motak, elementuak, egungo egoera... Horrez gain kableak jarri zireneko data, luzera ibilbidea, berezitasunak, terminologia, planoak, argazkiak, elkarriketak... aurkitu ahal izango ditu bertan irakurleak.

Labur-labur

● San Martingo gazte talde batek Oargi Troskaeta elkar-tea berriro martxan jartzeko ekimenari ekin berri dio.

Izen emateko epea irekita dago baino beharrezkoa da 16 urtetik gorakoa izatea. Informazio gehiago nahi duenak jar bedi harremantetan Eusko Urrestarazu edo Aitor Sukiarekin.

● Jaiotzak beti dira pozgarri baina bereziki gurea bezalako herri batean. Ongi-eto-riak izan zaitezte beraz, Izaro Erauskin Altuna, Uxue Imaz Munduate, Eñaut Noguera Eskisabel eta Jon Olano Goikoetxea. Eta oro har orrialde honetan aipatzeke utzi ditugun haurrok.

Agurtzane Bikuña



Pottoka
KAFETEGIA

Legazpi kalea. 3

ORDIZIA

● Pintxo hotz eta beroak

● Ogiltartekoak

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33

BEASAIN

ZALDIBIA

Herri arteko pilota txapelketa



Orain hamabost egun eman zitzaion hasiera Gipuzkoako herri arteko pilota txapelketari. Aurtengoan zortzi talde-tan banatu dira herri ezberdinetako pilotariak, eta zozketa ostean, zaldibitarrei Usurbilko eta Lazkaokoen aurka jokatzea egokitu zitzaion.

Lazkaoren aurka Zaldibian jokatutako kanporaketan ez ziren gauzak nahi bezala hasi; kadete mailan, Xabat Garmendiak eta Aratz Mendizabalek osatutako bikotea errez gailendu zitzaion lazkaotarrei, baina jubenil mailako partidua kanpotarren aldera jo zuen; Eneko Rodríguezek eta Ibon Gurrutxagak ezin izan zioten aurkariari jokuari aurre egin. Azkenengo partidua Harriet

Mendizabalek eta Haritz Eskisabelek jokatu zuten. Norgehiagoka orekatua izan zen arren, azkenean lazkaotarrentzat izan zen garaipena.

Lazkaon jokatu ziren itzuliko partiduetan emaitza bera lortu zuten, eta zaldibitarrek zuten itxaropen urria zapuztu zen.

Bukatzeko, esan, ostiral honetan, gaueko 10etan izango dela Usurbilen aurkako partidua, Usurbilen bertan. Ez dute ez gaizki hartuko herriarren txalo eta animorik.

San Isidro festa

Maiatzaren 15ean, San Isidro egunean, baserriarren egunean, festa izango da herrian. 12:00etan herri meza izango

'Xalbador bat-bateko mirakulua'

'Xalbador bat-bateko mirakulua' bertso saioa izango da Xabier Amurizaren eskutik, maiatzaren 14an, antzokian, 22:30ean. Saio honetan Urepeleko Xalbador bertsolariaren bat-bateko bertsoen antologia azalduko da.

da. Ondoren, bertsolarien saioa plazan. 14:00etan bazkaria Zubi Buru elkartearen, 3.500 pezetaren truke (tikeak jasotzeko azken eguna, maiatzak 13). Ondoren, bertsolarien saioa eta Agarreko Ainhoa eta Idoia trikitilarien erromeria.

Sauna

Maiatzaren 3an hasita martxan da jada sauna zerbitzua gimnasioan. Hemendik aurrera 16 urtetik gorako herriarrek erabili ahal izango dute zerbitzu hau eta saio bakoitzak 500 pezeta balioko du. Telefono honetan egin daiteke orduen eskaria, 943160338, astelehenetik ostiralera 13:00tik 18:30etara, ondorengo ordutegia kontutuan izanik:

Astelehen eta ostiraletan

18:00etatik 19:30era emakumezkoak; astelehen eta ostiraletan 19:30etik 21:00era, gizonezkoak; asteazkenetan 18:00etik 19:30era gizonezkoak; eta asteazkenetan 19:30etik 21:00etik emakumezkoak.

Uda 99

● **Haurren jardueretarako begiraleak.** "Uda 99" udako kanpainaren barnean, beste urteetan antolatu izan den moduan, haurrentzat, uztailan, jarduerak antolatuko dira, ekainaren 28tik uztailaren 23ra, astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00ra. Begiraleetarako izena eman nahi dutenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: - Zaldibian erroldatuta egotea. - 18 urteak beteta izatea. - Euskara ondo menderatzea.

● **Tenis ikastarorako monitorea.** Gaztetxoei tenis ikastaroa emateko monitorea bat ere kontratatu nahi du udalak. Interesatuak, euskara ondo menderatzeaz gain Zaldibin erroldatuak izan beharko dute, eta kultur etxean eman dezakete izena.

Sarai Jauregi
Iñaki Gurrutxaga

ITSASONDO

Maiatzak 7, arratsaldeko 6,30etan, 'Erremedio naturalak' hitzaldia izango da udalletxean. Gaueko 9etan, Arbel Aitz elkartearen herri afaria izango da. Afalondoren, Alaitz Katarain eta Ainitze Otamendi idiazabalaren eskutik euskal abestiak izango dira entzungai.

Maiatzak 8, gaueko 10,30etan, urteroko bertso jaialdia izango da Errota pe-lotalekuan, Nikolas Zeberio-

ren agindupean. Bertan kantuan izango diren bertsolariak: Juan Mari Irazu, Maddalen Lujanbio, Andoni Egaña, Imanol Lazkano, Igor Elortza eta Alaitz Sarasola ordiziarra.

Argazki erakusketa

Maiatzaren 9an, mezaren ondoren, txistularien omenaldiko argazkien erakusketa zabalduko da Udal aretoan. Maiatzaren 16ra bitarte egongo da zabalik. Norbai-

tek argazkiren baten kopiarik nahi izango balu, udal bulegoan bete beharko du orritxo.

Sendabelar ikastaroa

Naturalik antolaturik udal- etxean sendabelar ikastaroa izango da maiatzaren 18tik ekainaren 10era arte. 16 orduko iraupena izango du eta asteartetan eta ostegunetan, 18:00etatik 20:00etara izango da, Zorion Insausti ordiziarren eskutik.

Ikastaroa batik bat praktiko izango da. Helburuak inguruko landareak ezagutzea, bereiztea eta bakoitzaren propietate eta berezitasunak jakitea dira. Jasotako landareekin errezetak egingo dira sukaldean: ukenduak, xara-beak, eta abar.

Ikastaro honetan parte hartu nahi dutenek udaletxera deitu beharko dute, maiatzaren 14a baino lehen. Telefonoa: 943 881170.

Kultur astearen azken txanpa

BEASAIN

Eguneko zentrua abian da

Eguneko Zentrua zerbitzu berria laster jarriko du Udalak martxan. Etxean zainduta egoteko arazoak dituzten agureei zuzendua dago zerbitzu hau, eta goizeko 9,30etatik arratsaldeko 5,30ak arteko ordutegia izango du, astelehenetik ostiralera.

Jose Luis Elorza Gizarte Ongizateko zinegotziaren esanetan, maiatzaren amaierarako hasiko da martxan zerbitzu berria. Gurutze Gorria izango da agureak etxean jaso eta bakoitzaren ordutegiaren arabera, behar duenean etxeraino itzuliko duena. Agureek, gainera, otorduak eta ariketak ere izango dituzte.

Era horretan arazo ezberdinak direla medio, behar izan arren, etxean zainduta egon ezin duen jendeari intera bat eskaini nahi dio Udal-letxeko Gizarte Ongizate sailak. Lokala Urbialdén egiten

ari dira (Gurutze Gorriaren azpian), eta laster amaituko dutelakoan dago Elorza. Hamasei agureentzako lekua izango du Eguneko Zentruak. Hautaketa txosten medikuek erabakiko badute ere, orokorrean bi dira bete beharreko baldintzak: 60 urtetik gora edukitzea eta autonomia arazoren bat izatea. Hasiera batean beasaindarrei zuzendua dago, baina leku librerik geratzen bada Goierriko agureei zabalduko zaie zerbitzua. Eskiera epea irekita dago dagoeneko, eta egin beharreko gestioak zaharren egoitza batera sartzeko egin beharrekoen antzekoak dira. Apirilaren 29an onartu ziren Udal Batzarrean zerbitzua zein enpresari kontratatuko zaion erabakitzeke baldintzak. Hala ere, Elorzak argi utzi nahi izan zuen zerbitzua Udalarena dela, nahiz eta enpresa batek zuzendua egon.



Udaberriko ekintzak Ezkiaga auzo etxean

'Udaberri kolorez jantziz' lemapean, hainbat txapelketa eta tailer antolatu dira Ezkiaga auzo etxean, maiatzaren 27ra bitartean. 5 eta 16 urte bitarteko haur eta gaztetxoek asteartean txapelketak izaten dituzte eta ostegunetan tailerrak.



Hitzarmena Euzko Ikaskuntzarekin

Udalak hitzarmena sinatu zuen maiatzaren 4an Euzko Ikaskuntzarekin, erakundeak eratzen dituen ekintzei bideragarritasuna emateko. Udalak diru-laguntza emango dio urtero Euzko Ikaskuntzari eta trukean Euzko Ikaskuntzak hainbat zerbitzu eskainiko dizkio. Tartean legoke Euzko Ikaskuntzak urtean behin, Beasainen Elkartearen Lan Sailekin zerikusirik duen ekintzaren bat prestatzea. Honen harian, datorren urtean errotan inguruan jardunaldiak antolatzeke asmoa dauka Udalak eta bere antolaketaz Euzko Ikaskuntza arduratuko da.

EGI

Lizarra-Garazi akordioarekin bat egiten du Beasaingo EGIK. 'Sinatzaileen Beasaingo Komisia'-aren barruan sartu da EGI.

Maiatza Dantzan

Gaur, maiatzak 7, gaueko 22:30ean, Maiatza Dantzan ekimenaren barruko saioa izango da Usurbe antzokian. Diez & Diez konpainia, 'Little Tales' obra eskeiniko du. Talde gaztea izanagatik, sari ugari jasotakoa da.

Musika Eskola

Loinatz Musika Eskola Publikoan 1999-2000 ikasturterako izena ematako epea irekita dago. Dagoneko musika eskolako ikasle direnentzat maitzaren 14ra bitartean dago epea irekita; eta ikasle be-

rrientzat, maiatzaren 19tik 31ra. © 943 805255.

Mariren jaitzieraentseiuak

Aurtzaka dantza taldeak jakinarazi duenez, Mariren jaitziera parte hartzeko dantzako entseiuak, gaur, maiatzak 7, hasiko dira, iluntzeko 8,30etan, kiroldegian.

Jai egitaraua Interneten

Teknologia berrietara egokitzuz, jai egitaraua Interneten irakur daiteke, ACV Multi-mediari esker. Beraiek egin dute egitarauaren diseinua. Jaietako kartelaren irabazlea ACVko langilea den Alberto Bueno izan da. Interneteko helbidea: <http://members.es.tripod.de/beasainjaiak>.

Jon Ordoñez - L.A.

**Labores
Otea**

**Gurutze-puntua,
puntu erdia
eta artiletan
bereizitasuna**

**Bordatuak eta
arropa
konponketak
egiten dira**

Andra Mari, 1 ☎ 943 16 23 84 BEASAIN

MIRENTXU

LIBURUDENDA • OPARIAK • PAPERDENDA • FOTOKOPIAK • FAXA

Festak ondo pasa!

Kale Nagusia, 1
Nafarroa Etorbidea, 7

BEASAIN

☎ 943 88 14 57
☎ 943 88 04 55



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN

ORLEGI

Elikadura Naturala eta Belardenda

MEDIKU ZERBITZU ESPEZIALIZATUA

- Txaro del Teso: NATUROPATA
- Esteban Rodriguez: MEDIKUNTZA HOLISTIKOA
- Jesus Huarte: MEDIKUA (elk. zenb. 3.840)
- Rosa Monge: DIETISTA
- Rufino Murgia: MASAJISTA - OSTEOPATA
- M^a Jose Gonzalez: MASAJISTA - AKUPUNTOREA

*Jai zoriontsuak
guztiori!*

**Naturopata
estetiziena
masajista
egunero**

*Seriotasuna,
profesionaltasuna eta
aukera ezberdinak
aurkitu nahi badituzu*

Nafarroa Etorbidea, 5

☎ 943 16 21 10

BEASAIN

Kale Nagusia, 11

☎ 943 16 21 91

ORDIZIA

Jaunartzeak ospatzeko inolako arazorik izango ez bada ere, produktu kimikoak botatzen aritu izan dira orain arte elizan. Arrazoia pipiz josita zeudela elizako egurrak. Badakigu denok ere zein nolako kalteak egiten dituzte intsektu txiki hauek eta dirudienaz azken boladan elizako egurra janez euren goseak asetu nahian ibili dira. Intsektuok uxatzen ditutak direnei deitu, euren lana egin eta badirudi zauriak sendatuta geratu direla.

Erretaula mordoa, kaperak, organua, sakristia, korua eta hainbat irudi pipiek hain gustokoa duten materialeaz eginak daude. Denek ere kalteak jasan badituzte ere, azkenik ez dira hain egoera txarrean geratu. Aurretik aipatu bezala, igandean bertan hasiko dira urteko jaunartzeak eta inongo arazorik gabe ospatuko dira, bertan erabilitako produktu guztien usain eta kiratsak kanporatuta baitaude jada.

Amaitzeko aipatu elizako sarrera aldea hesituta ikusiko dugula hemendik aurrera, asteburuan batez ere jendeak elizako paretak erabiltzen



San Pedro kaleko lanak

Aurreko hamabostaldian azaltzen genizuen bezala, herria obraz beteta daukagu. Argazkian ikus daitekeen hau horien erakusgai bat besterik ez da. San Pedro kalea erabat altxatu, beharrezkoak ziren hodiak sartu eta berriro estali Goen, Legazpi eta Goitia kalean ipinitako zoru berdina jartzeko asmoz.

baitzituen bertan egin behar ez diren gauzak egiteko.

Futbol taldeak maila galdu

Denboraldi pattala burutu ondoren errejionaleko bigarren mailarako txartela eskuratu du futboleko talde nagusiak. Denboraldi hasieran helburua preferente mailara igotzea baldin bazen ere, denborak aurrera egin ahala berau aldatu eta maila ez galtzea bilakatu zen. Azke-

nean, oraindik denboraldia amaitzeko bi jardunaldi geratzen baldin badira ere, aspaldian ezagutu ez duen kategoriora jaitsiko da.

Gauzak honela, arazoak arazo, aurtengoa erabat ahaztea izango dute onena eta datorren urteari begira jarri. Kontutan hartuta errejionaleko bigarren maila estatuko kategoriarik baxuena dela, zerotik hasi beharko direla esatea izango da onena. Taldea berreraiki, Zu-

zendaritza sendotu eta berriro ere igoera lortu nahian lanari ekin.

Saskibaloian ere berdin

Herriko saskibaloia talde nagusiak ere, hamar urtez bigarren mailan aritu ondoren, agur esan dio aipatu mailari. Hasera-haseratik lesioek ez die batere lagundu, arbitraiak beste alde batetik eta jokalaria asko kanpoan ikasten ari direla kontutan hartuta, oztupo gehiegi izan dituzte denboraldi osoan zehar eta, azkenik, inori gustatzen ez zaiona, maila galtzea. Ziur hauek ere datorren urtean kategoria berreskuratu nahian hasiko direla.

Értaroko peria

Azken urteetan bezala, asteburu honetan ospatuko da Értaroko Peri Berezia. 3. orrian duzue honi buruzko berri zabalagoa.

Aitor Calvillo

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998

BIZKARREKO MINAREN ESKUZKO TRATAMENDUA

R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.

Eskatu ordue: ☎ 629 45 20 53 - 943 88 92 22
Andra Mari, 13 behea ezk. - BEASAIN

ALUMINIOS



Zubi termikoaren haustura
Aroztegiatarako profilak
Bainu manparak
Aluminio xafla normalizatuak
Makinaria

Biltegia: ☎ 943 16 11 66

Bulegoak: ☎ 943 88 93 50

Faxa: 943 16 02 91

10 Poligonoa

34-36 Pab.

BEASAIN



X ENKEGI
ETXE-AROZKINTZA

Diseinuak neurrira

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113

Tel mugik.: 619 487056

Senpere Merkatalgunea, 25

Sukaldeak

Ateak

Zorruak

Armairuak

BEASAIN



GABIRIA

Arkaitz Goikoetxea irabazle

Apirilaren 24an jokatu zen Osinalde elkartearen XXVIII. Bertsolari Gazteen Txapelketa eta bertan honako sei bertsolari hauek hartu zuten parte: Arkaitz Goikoetxea, Oihane Perea, Ekaitz Goikoetxea, Joseba Gojenola, Estitxu Eizagirre eta Jokin Uranga.

Afari garaiko giro ederraren ondoren ekin zioten bertsolariek euren jardunari eta zalantzarik gabe azken hiru urte hauetako saiorik onena izan zen larunbatekoa. Oihane Perea izan ezik, beste bostak oso parean ibili ziren eta kartzelako saioak erabaki zuen neurri handian zeinek jantziko zuen txapela.

Kartzelako saio horretan aurtengoan eta lehenengo aldiz binaka aritu ziren bertsolariak, eta saio horretako azken bertsoan huts egin zuen ordura arte arrazoietan sendo eta erasorako prest agertu zitzaigun Estitxu Eizagirrek.

Ekaitz Goikoetxeak ere bertsorik kaxkarrenak kartzelako saioan bota zituen, eta ondorioz Arkaitz Goikoetxeak irabazi zuen lehenengo saria. Dena den, Arkaitz Goikoetxeak aurretik ere bertso zoragarriak bota zituen bakarka egindako saioan.

Afaltzera eta bertso saioa entzutera hurbildutakoen iritziz ere Arkaitz Goikoetxea izan zen onena, baina honek lehenengo saria irabazi zuenez, bigarren saria Ekaitz Goikoetxeak eskuratu zuen.

Joseba Gojenola oso txukun aritu zen hasieratik bukaera arte eta txapela irabazi ez bazuen ere oso gertu ibili zen eta berari eman zioten bertsorik onenaren saria, hain zuzen ere, Ekaitz Goikoetxearekin egindako saioan botatako bertsoarengatik. Ekaitz etxe huts batean bizi zen sagua genuen eta Joseba etxe horretara bizitzera joan zen bizilaguna. Hona hemen



Ezkerretik hasita Arkaitz eta Ekaitz Goikoetxea.

gai horri botatako bi bertso:

Ekaitzek:

Lehen liparra pasa ondoren beldurtua naiz zeharo zure alboan jolas ta jolas ezin egon naiz luzaro neska laguna ezagutzeko irriki bizian nago, ezkutatze izan dezadan beste zulo bat gehiago

Gojenolak:

Zuk kontrolpean nola duzun zeu ezkutatze sonak beti izan naiz serioa ta ez ditut onartzen bromak; bete-bete tapatzen ditu

zuloak sarri gizonak irteera bat duten zuloak ez dituzu horren onak.

Jokin Uranga ere dotore aritu zen eta irabazleek adinako maila baduela garbi azaldu zuen.

Gaia jarri eta bertsotan hasteko tartea batzuetan luze samarra izan bazen ere, saio ederra izan zen larunbatekoa eta ea datorren urtean ere antzeko mailaz gozatzeko aukera dugun.

Gabino Murua

LAZKAO

Lazkaomendiko jaien txanda

Maiatzak 8, larunbata:

15:00etan: Plater tiraketa.

16:00etan: XXIII. Lazkaomendiko proba.

21:00etan: Auzo afaria.

23:00etan: Koldo Iparragierre musika taldea.

Maiatzak 9, igandea:

11:00etan: Meza Nagusia

12:00etan: Haur jokoak.

13:00etan: Zeberio eta Mañukorta bertsolariak, txiste kontalariak eta Tapia eta Leturia trikitilariak.

17:00etan: Aizkolariak: Arria V. eta Olsagasti; Ize-ta harrijasotzailea; Urrestillako herri-kirolak eta asto karrera.

18:30ean: Bertsolariak eta txiste kontalariak.

19:00etan: Tapia eta Leturia.

Ardo-dastaketa ikastaroa

Ekainaren 20an La Puebla de la Barkan ospatuko den Araba Euskarazen barruan, Goierriko Euskal Eskolak bertako antolatzaileekin batera, ardo-dastaketa ikastaroa antolatu du. Maiatzaren 15ean izango da, 11:00etatik 13:00etara. Irakaslea Mikel Garaizabal, Aprako kidea (Arabako Errioxaren Sustapenerako Elkartea) izango da. Ikastaroaren prezioa, 1.500 pezetakoa da. Izena emateko epea, maiatzaren 14an bukatuko da. Izena Gerriko Liburudendan (943-886500) edo Goierriko Euskal Eskolan (943-160282) eman behar da.

AMEB



Sagardotegia

Maiatzaren 5 eta 6ko gauetan itxita,
7tik aurrera erretegi bezala irekita.

* Eguneroko menuak

* Asteburuko menu bereziak

* Karta zerbitzua

* Sagardotegiko menua

SAGARDOA TXOTXETIK

* Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO



RENAULT

AGENTZIA

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901

Faxa: 943 888901

LAZKAO

ORMAIZTEGI

Irizar, Ormaiztegitik mundura

Gure herriko Irizar enpresaren erronka berri baten aurrean aurkitzen gara. Orain dela ehun urte baino gehiago Irizar sendiko kideak gurpilak egiten hasi zirenean, inori ez zitzaion bururatu ere egingo Irizar izena eramango zuten autobusak mundu guztiko errepideetan ibiliko zirenik. Gaur egun, berriz, gure herrian egiten diren autobusak kontinente guztietako errepideetan aurkitzea errealitate bat da.

Irizar kooperatiba aurrera doa. Pertsonengan oinarritutako proiektu baten aurrean aurkitzen garela diote eta bere fruituak begi bistan ditugu. Aurten ere Irizarren esportazioek, salmentek eta noski etekinek ere goruntz egingo dute. Beraien helburu nagusienetarikoa lortzen di-

tuzen etekinekin lanpostu berriak sortzea da. Aurtengo urtean ere helburu hau gauzatzen ari da. Hain zuzen Irizarrek Ormaiztegiko lantegian, 1998ko abenduan 591 langile zituen, gaur egun berriz, dagoeneko 621 langile ditu. Bestetik gogoratu behar da Irizar lantegiko langileen batazbesteko adina 35 urtekoa dela, beraz lanasku gaztearen aurrean aurkitzen gara.

Beraz, aipatu bezala, Europan autobusgintzan bigarren postua duen gure herriko Irizar enpresa esportazioetan eta lanpostuen sorreran etenik gabeko gorakadan aurkitzen da. Baina Irizarren gorakada ez da bi alderdi horietara bakarrik mugatzen, internazionalizazioan ere atea zabalduz doa. Hain zu-

Nortasun agiria egiteko bulego berria

Goierrri eta Urola eskualdeetako herritarrek dagoeneko nortasun agiria egin edo berritzeko Donostiara joan beharrik ez dugu izango. Beasainen bulego berria ireki baitute eta nortasun agiriari dagozkion gestioak bertan egiteko aukera baitugu.

Nortasun agiriari dagozkion gestioak egiteko bulego hau hilabete bakoitzeko bigarren eta laugarren ostegunetan irekiko dute. Dena den zerbitzu horretaz baliatzeko eta ordua hartu ahal izateko, estankoa saltzen duten orria eta nortasun agiriaren fotokopia bat eraman behar dira Beasaingo Udaletxean kokaturik dagoen bulego horretara. Argibide gehiago behar izanez gero nahikoa duzue 943 805279 telefonora deitzea.

Eratzun bat galdu da

Apirilaren 23an, Maiora enparantzan eratzun bat galdu zen. Norbaitek aurkituz gero, duen sentimentuzko balioa handia denez, mesedez udaletxean entregatzea eskatzen da.

zen egun hauetan Mexikon irekiko duen lantegi berriaren aurkezpena egin baitu. Dagoeneko Irizar Group bezala ezagutzen den honek Maroko, Brasil, Txina eta

Sevillan ditu bere lantegiak. Orain, berriz, Mexikoko bidetako hurratzera doa, guztira 2.000 langileko talde batean aurrean aurkitzen gara.

Aitziber Murua

ZEGAMA

Arantzazuko peregrinaziorako prestaketak

Aurten maiatzaren 23 eta 24an egingo da peregrinazioa eta herritarrok beharrezko izango ditugun autobusak antolatzeke asmoz, izen emateak datorren astean hasiko dira udaletxean.

Autobusen ordutegiak hauek izango dira: 23an, Apeaderorako autobusen irteerak, goizeko 8etan eta 10etan; Arantzazutik Zegamara, iluntzeko 8etan. 24an, Zegamatik Arantzazura goizeko 8etan; itzulera, arratsaldeko 4,30ean.

Igande goizeko autobuserako izan ezik gainerakoetarako behar-beharrezkoa da udaletxean txartelak jasotzea, maiatzaren 20ko iluntzeko 7ak baino lehenago. Herrian erroldatuek izango dute lehentasuna.

Pazko bigarrenenerako afaria

Maiatzaren 24an egingo den Pazko bigarrenenerako afarirako izen emateak maiatzaren 12tik 18ra bitartean egin behar dira, udaletxean.

San Isidro eguna

Maiatzaren 15ean, baserritarren eguna ospatuko da. Eguerdiko ordu batean meza izango da Martin Deunaren parrokiaren ondoren lagunarteko bazkaria Ostatun. Bazkarirako izen ematea, Ostatun bertan egin behar da.

Laburrak

● Apirilaren 25ean Beasainen egin zen Odol Emaileen 34. batzarrean bi herritarrek zilarrezko domina eta oroigarri bana jaso zuten, 25 aldiz odola emateagatik: Iñaki



Martin Gorospek utzi digu argazki zahar hau. Zegamako eskolako 1932-1933 ikasturteko ikasleak dira guztiak.

Ormazabal Urbizuk eta Asun Mendizabal Elizegik.

● Zegamako euskarari buruz Joxe Migel Azurmendik idatzitako liburuaren aurkezpena egin zen joan den apirilaren 23an Lazkaon. Gerriko Ikerlan sariketako saria irabazi zuen liburu honen aurkezpena interesgarria izan

zen geure euskalkiaren ezaggarriak laburbildurik azaldu baitziren hitzalditxo batean.

● Mendi-irteera. Maiatzaren 16an Lareo-Oidui-Ganbo-Alotza-Lareo mendi-irteera egingo da, goizeko 8etan plazatik abiatuta.


Edurne Albizu

ZAHARKINAK ERAKUSKETA SANTA LUTZIKO KULTUR ETXEAN: Ezkio-Itsasoko baserrietako tresnen erakusketa

Ezkio-Itsasoko baserrietan tresnak, lanabesak, erramintak, altzariak, dokumentuak, argazkiak eta abar bilduz osatu da 'Zaharkinak' erakusketa. Maiatzaren 7tik ekainaren 13ra bitartean egongo da ikusgai, Santa Lutziko Kultur Etxean. Aranzadi Zientzia Elkarteko Etnografiak sailak prestatu erakusketa, Ezkio-Itsasoko Udalaren eta 'Yartu' elkartearen laguntzaz.

Aranzadi Zientzia Elkarteko Etnografiaren proiektua da Zaharkinak. Orain 10-11 urte diseinatu zuen Fermin Leizaolak eta Gipuzkoako Diputazioari eskaini zion. Harrezkero, urtero herri ezberdin batean egiten da erakusketa. Zaldibian eta Zerainen egin zen hasierako urteetan.

Santa Lutziko Kultur Etxean izango da ikusgai Ezkio-Itsasoko erakusketa, maiatzaren 7tik ekainaren 13ra. Egunero egongo da irekita, goizeko 9,30etatik 12etara eta arratsaldeko 5etatik 8etara. Talderen batek beste ordutegiren batean joan nahiko balu erakusketa ikustera, udaletxearekin jarri beharko luke harremanetan



Gari jotzeko makina, gari garbitzeko makina, erlezaintzako tresnak, ehungintza tradizionalako piezak, gozokiak egiteko makina... daude ikusgai. Argazkian, antolatzaileak tresnak txukuntzen.

(943 721303). Koaderno didaktikoak prestatu dituzte Aranzadikoek, ikastetxeetatik etorriko direnentzat. Erakusketan dauden hainbat piezen inguruko galderak erantzun beharko dituzte ikasleek.

1.000 pieza zahar

Erakusketa egiten den herriko baserrietako tresna, lanabes, erraminta, altzari eta objektu zaharrak biltzea du helburu Zaharkinak-ek. Era honetan, belaunaldi berriei baserrietako tresna bakoitza zertarako erabiltzen zen erakutsi, zaharrenei oroitzapenak gogorarazi, eta Gipuzkoako baserrietako tresnen inbentarioa egin nahi dira. Dagoeneko 8.000 bat piezen inbentarioa eginda daukate Aranzadikoek.

Ezkio-Itsason 1.000 pieza pasatxo bildu dituzte, 45 baserrietan. Garbitu edo txukundu eta gaika sailkatzen da erakusketa. Modernismoaren izenean tresna eta altzari asko bota egin omen dituzte baserrietan. "Sentsibilizazioa falta da arlo honetan".

Aranzadikoek adierazi digutenez, Ezkio-Itsason ez dute tresneria berezirik aurkitu. "Aitzurrak, sega-mailuak... denean berdinak izaten dira baina herri batetik bestera aldatzen da zerbait, Gipuzkoa oso txikia izanagatik, ezberdintasun handiak baititu, langintzari dagokionean. Kostaldean esaterako, arrantzako gauza asko daude. Beterrin, herri inguruetan... iraupeneko nekazaritza izaten da eta hainbat altzari kendutakoak.

Mendialdeko herrietan, nekazaritza tradizionalaz gain, artzantza ere badago. Orduan artzantzako, gaztagintzako... tresnak daude, beste leku batzuetan ez daudenak. Zaldibian erakusketa hau egin genuenean, artzantzako oso tresna garrantzitsuak aurkitu genituen", argitu digu Leizaolak. Hori bai, beste herrietan baino egoera hobean aurkitu dituzte omen piezak Ezkio-Itsason.

Erantzun ona

Aranzadikoekin batera, Maria Ixabel Arakistain herritarra ibili da baserriz baserri tresna zaharrak biltzen. Herriarrek oso ondo erantzun dute eta Aranzadikoek Ezkio-Itsason Igartu Beiti baserriaren inguruan sortu den 'Yartu' elkartearen lana go-raipatu dute, "arlo honetan lan handia egiten ari dela oso nabaria da eta oso erantzun ona izan dugu".

Erakusketa honek ere badu beste eragin bat. "Askotan gertatu izaten zaigu, guk piezak biltzen ditugunean, ganbaran edo baztarren batean eduki eta erakusketa bukatutakoan, agerian jartzea, kanpoko jendeak baloratzen duela ikusten duenean. Ganbaran egotetik atarian egotera pasatzen da. Guk piezak garbitu bakarrik egiten ditugu eta beste itxura bat edukitzen dute. Askotan ez dituzte ezagutu ere egiten".

IBAI-ONDO

Altzariak neurria

Mota guztietako aroztgi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43
Antzizar Auzoa, z/g **BEASAIN**



ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreto, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN

IDIAZABAL

Idiazabal gaztaren hiriburu

Ehundaka lagun bildu zen maiatzaren 2an, Gaztaren bigarren egunean. Euskal Herri osotik etorritako 14 artzainek egindako gazta doan dastatu eta erosteko aukera izan zen. Antolatzaileek balorazio ofizialik egin ez badute ere, datorren urtean gauzak nola hobetu pentsatzen ari ziren aurtengoa amaitzerako.

Ilun eta bustita esnatu zen eguna, baina eguraldiak ere eman zion buelta, eta goiz guztian ateri eutsi zion. Goizeko 10,30etarako Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Baxenafarroako artzainek bere gazta plazako puestoetan jarrita zuten. Bizkaitarrek eta Iparraldekoek estraineko aldia zuten Idiazabalen. Iparraldeko ordezkaria ezaguna oso, Erramun Martikorena. Gazta gutxi ekarri zuen eta baita azkar saldu ere. Baigorrikoak laister jarri zion erremedioa, gaztak bukatuta bere musika biltzen duten CD-ak saltzen hasi baitzen. Eguerdian zuzenean kantatu ondoren, agurtzerakoan "hurongo urtean deitzen banauzue gustora izango naiz hemen eta Iparraldeko artzain gehiagotzainak gustora, "iaz baino gehiago saldu dugu, jende gehiago ere bildu da", zioen Azpeitiatik etorritako emakumeak, beste baten hitzak hauek: "goiz erdian etxera deitu eta gazta gehiago ekartzeko eskatu dut". Bestelako jaki eta edari saltzaileak ere gustora bukatu zuten goiza.



Argazkia: Fotoetxe

ri ere esango diet etortzeko", esanez alde egin zuen.

Jexux Aranburuk eta Luis Katarainek hamaika aldiz esplikatu zioten batari eta beste artzainek gazta nola egiten den. Luisek era zaharrean, Jexuxek berriz traste modernoagoak eskuetan zituela. Ardi moztan, eskuz beste bi herri-tar, Domingo Goiburu eta Benito Eziolaza aritu ziren. Igande goiza pasatzeko entretanimendu ona hartu zuten. Atzean zain zuten makinaz ardi moztan aritu zen Antonio Cañadas, "abantaila utziko diet, batera hasiz gero nik berehala bukatuko baitut".

Eguerdia pasata jendea non-nahi, antolatzaileek uste baino gehiago, "datorren urterako zerbait pentsatu beharra dago, futbito aldean puestoak jarri edo frontoi aldera zabaltu, plazan eta zubian jendetza handia pila-tzen ari da", zioten bi antolatzaileek plazako zubian to-po eginda.

Manuel Mintegik gustora hartu zuen herriak egindako omenaldia. Hunkituta jaso zuen Udalaren eta herriarren izenean Antton Irizar alkate-ak emandako oroigarria. Dantzarien agurra ere jaso zuen. Izan ere igandea aukeratu zuen Axari dantza talde-ak jendaurreko lehen emanaldia egiteko. Azken hila-bete hauetan ikasitako lau dantza erakutsi zituzten herriko neska-mutikoei.

Bazkalordua iritsita, ar-

tzainak gustora, "iaz baino gehiago saldu dugu, jende gehiago ere bildu da", zioen Azpeitiatik etorritako emakumeak, beste baten hitzak hauek: "goiz erdian etxera deitu eta gazta gehiago ekartzeko eskatu dut". Bestelako jaki eta edari saltzaileak ere gustora bukatu zuten goiza.

Telebista kamarek, gertutik jarraitu zuten Idiazabalen gertatutakoa. Euskal Telebis-tako Bertatik Bertara eta Sustraia saioretakoak, Espai-niako Telebistako Corazón de Primavera, eta Tele 5ko Euskal Autonomi Erkidego-ko albistegietako kazetari eta kamarek ere eman zuten zer esana. Oraindik norbaitek duda egiten badu ere Anne Igartiburu ez zen izan Idiaza-balen.

Xabier Urteaga

Igerilekurako arduradunak

Aurtengo udarako igerilekuko arduradunak aukeratzeko deialdia egin du Udalak. Ondoko baldintzak ezarri dituzte: herritarrak izan, 18 urte beteta edukitzea eta euskara menderatzea. Horretaz gain uretako sokorrismo titulua edukitzea, agiri hori taldeko kide batek edukitzea ere baloratuko da. Eskaria egiten dutenek zerbitzua zer nolako taldearekin emango duten ere adierazi beharko dute. Izena maiatzaren 18a baino lehen eman behar da udaletxean. Aukeraturakoei ekainaren 1etik iraila bukatu arteko kontratua egingo zaie.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



MG UAR

Argiztapenak



Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 943 88 86 88

☎ mugikorrak: 619 46 22 65

eta 619 46 22 68

ORDIZIA

DIETETIKA ETA ELIKADURA

- ✓ Kolesterolia, diabetes eta abar zaintzeko
- ✓ Pisua kontrolatzeko eta soberan dauzkagun kilo horiek galtzeko, inongo pastilarik edo botikaririk gabe. Dietista batek egindako dieta osasuntsu eta orekatu baten bidez

ESKATU ORDUA


GORAIT - Andra Mari, 5 (Udaletxe parean)

☎ 943 88 87 62

BEASAIN

LEIAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN



Nafarroa
Etorbidea, 9

EGUZKI
INPRIMATEGIA

☎ 943 88 94 82

BEASAIN

Loinatz abesbatza txapeldun Aragoi

Beasaingo Loinatz abesbatzak irabazi berria du Ejea de los Caballerosko (Aragoi) abesbatzen lehiaketa. Duela 7 urte ere irabazi zuen txapelketa bera, baina aurtengoak garrantzia handiagoa dauka. Izan ere, Espainiar Estatuko beste 5 herritan jokatu diren txapelketetako talde irabazleekin, datorren urtean, Murtzian, txapeldunen txapelketa jokatu baitute.

Alde handiz irabazi zuen Ejeako txapelketa Loinatz abesbatzak, Xabier Sarasola zuzendariak adierazi digunez. 1992an ere irabazi zuen Ejeako lehiaketa, baina aurtengo irabazleak badu beste betebeharrak bat: Espainiar Estatuko 6 herritan (Ejeakoa barne) jokatu txapelketetako irabazleekin, datorren urtean, Murtzian, txapeldunen txapelketa jokatu dute. "Joaten ez bazara, txapeldun irten zaren herriko lehiaketan hainbat urtean debekatu egiten dute partehartzea", zehaztu digu Xabier Sarasola zuzendariak.

Ejean lau obra kantatu zituzten: bata behartutakoa, bestea Aragoirekin zeriku-



Loinatz abesbatzako partaide gehienak.

sia zeukana, eta besteak biak libreak. Entseietako orduak eman zuten bere fruitua. "Buruz ikasita eraman genuen dena, jendea oso jarrera onarekin zegoen eta oso-oso saio ona egin genuen. Zati batzutan 12 ahotsetan aritu ginen. Nahikoa lan eman digu baina azkenean ondo aterazena".

Zuzendariak sariari baino garrantzia handiagoa ematen dio, txapelketako epaimahaiari. "Harremanak egiten dira, oso kritikak dira eta bukaeran zoriondu egin gintuzten".

Era honetako txapelketetara aurkezteak ondorio onak ditu Xabierren ustez. "Jendea arduratu gehiago sartzen zaio, gehiago lantzen dute".

42 bat lagunek osatzen dute Loinatz abesbatza. Xabier Sarasola da zuzendaria. Momentuz kantari arazorik

ez daukate. Sarasolak aitortu digunez, "pare bat gizonetako gehiago hartuko gus-tura hartuko nituzke, baina kantatzen dakiten gizonezkoak". Beasaingo Musika eskolatik ateratakoak dira kantari gehienak. Musika Eskolan Loinatz Txiki abesbatza ere hor dago eta 17-18 urte bete eta aurrera jarraitzeko gogoia daukatenean, Loinatz abesbatza izaten dute lekua.

Tolosara begira

Ejeako bezalako lehiaketetan parte hartzeko maila ona dauka Loinatz abesbatzak zuzendariak berak esan digunez. Tolosako nazioarteko abesbatza lehiaketan oso maila altua izaten bada ere, Xabierrek ez du baztertzeko urte batzuk barru Tolosako lehiaketan parte hartzeko aukera, "saria irabazteko asmoarekin ez, gauzak ondo egiteko helburuarekin baizik". Prestaketa handia egin

beharko dute horretarako. "Errepertorio aldetik handiagoa da, garai ezberdinetako kantuak izan behar dira. Zortzi behar dira lehiaketarako. Ejean 4 lan abestu genituen. Tolosara etortzen diren asko erdiprofesionalak dira eta guk herriko jendearekin osatzen dugu taldea. Baina maila ona hartzen ari gara eta Ejeako sari honek haize piska bat eman digu".

Urteko emanaldiak

Ez dituzte emanaldi gehiegi izaten urtean zehar Loinatz abesbatzakoek. "Herrian 6 bat eta heritik kanpo 10 bat kontzertu eskaintzen ditugu urtean zehar. Herri gehienetan abesbatzak dau-de eta bakoitzak bere udalarekin harremanak edo hitzarmenak dituzte. Orduan, aurrekontuak horretan joaten dira, eta ezin dira abesbatza gehiegi ekarri. Trukeak egiten ditugu batzutan".

Abesbatzen federazioak ekimen berri bat jarriko du martxan. Abesbatzarik ez duten herri txikiak joango dira abesbatzak. Loinatz kasuan, ekainean Aiara joango dira. Ekainean ere izango dute beste konpromezurik: Donostian izaten den Aita Donostiaren inguruko zikloan kontzertua eskainiko baitu. Oporrak hartu aurretik, Katalunia aldean ere izango dute beste lehiaketa bat.

GOISYSTEM

Informatika aplikazioak



- ✖ Ordenadore salmenta
- ✖ Konponketa
- ✖ Informatika ikastaroak
- ✖ Etxeko zerbitzu teknikoak

Joan Iturralde, 1

☎ 943 88 79 14 - 943 16 04 01

BEASAIN

Josune Bereziartu: biderik zailena igo duen munduko lehen emakume eskalatzailea

Josune Bereziartu eskalatzailea munduko lehen emakumezkoa da 8c zailtasuneko eskalada bide bat igotzen. Gizonezkoek egin duten bide zailena 8c+ da, eta oraindik ziurtatu gabe dauden 9a pare bat. estatuan ez dira 10 gizonezko izango 8c zailtasuna igotzen dutenak. Iaz Munduko kopan 8. postuan geratu zen. 3 proba izaten dira, lehenengo proban ez zuen parte hartu. 2. proban 7. geratu zen eta 3. proban, berriz, 5. izan zen.

- 1994ko elkarriketa egin-dakoan, 2. aldiz Espainiako txapelkun izan berri zinen, munduko kopara joaten hasia zinen eta 8a zailtasuneko bideak igotzen zenuen. Zer aldatu da 5 urte hauetan?

- Dena. Urtero Espainiako Kopan txapelkun izan naiz, Euskadikoan ere bai. Munduko Kopan ez nintzen oso ondo ibiltzen, urduri jartzen



Esakaltzaile bezala, eskalatzen disfrutatzea du helburu Josunek.

nintzen. Iaz Munduko probatan gehiago zentratzea erabaki nuen eta Espainiako Kopara joateari utzi nion. Orain, harkaitzean ere gehiago zentratu naiz. Lehen landuta egiten nuen 8a hori orain bistaz egiten dut. Aurrerapen handia izan da hori.

- Munduko lehen emakumea izan zara harkaitzean 8c zailtasuneko bidea igotzen, baina munduko kopan 8. postuan geratu zara. Zein desberdintasun dago bien artean?

- Agian txirrindularitzan pistetan edo errepidearen artean

dagoen bezalako ezberdintasuna dago. Konpetizioko bi-deetan helduleku guztiak begibistan daude eta paretari erantsita daude, kanpora aterata daude. Harkaitzean, berriz, barruraka daude zuloak eta askotan ez dituzu ikusten. Hankentzat koska txikiagoak eta okerragoak izaten dira. Harkaitzeko bideak bistaz egitean normalean iraupenekoak dira, agian 15 minutu behar dituzu ikusten, probatzen... Txapelketetako bideak normalean erresistentzia-koak izaten dira, hasi eta 3-4 minututan erabat bukatuta daukazu, ez dago atsedeenik.

Teknika ere erabat ezberdina da. Konpetizioan gela batean sartuta egoten gara eta 6 minutu izaten ditugu bidea ikusi eta ideia bat egiteko eta ezin dugu ikusi besteek nola igotzen duten. Harkaitzean bide bat bistan egiten duzunean suposatzen da etika bat dagoela eta aurretik ez duzula inor hortik igotzen ikusi.

- Etika hori ba al dago eskalada muduan?

- Bai. Gauza berezia da, jende harroa badago, baina hori errespetatzen da. Norbaitek bistaz igo duela esaten badu, horrela egin duelako da. Hori ez bada errespetatzen eskaladaren zentzua galdu egiten da. Badago jendea, bide bat benetan dena baino zailagoa dela esten duena. Gero beste norbait igotzen da eta konturatzten da ez dela hain zaila, horrelakoak gertatzen dira. Eskalada muduan ez dago diru asko irabazteko.

- 8c zailtasuneko bidea igotzen munduko lehen emakumea izateak zer esan nahi du?

- Lehenik poz ikaragarria, eta ondoren gainetik pisu



J. MUJIK
Harategia

Nafarroa Etorb. 31 ☎ 943 88 04 88
BEASAIN

Nagusia, 16 ☎ 943 88 18 32
Gipuzkoa, z/g ☎ 943 88 08 78
Etzea ☎ 943 16 06 02
ORDIZIA



PELUQUERIA
Pascual
ILEAPAINDEGI MIXTOA

Nafarroa Etorbidea, 17
☎ 943 882 248 **BEASAIN**



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

ELKARTASUN DENDA



☎ 843 88 52 05
Kale Nagusia, 14 **BEASAIN**

● Ile tratamenduak (dohaineko analisia)

● Dermokapilar masaiak


● Koloretan azken teknikak

● Amaierako eta tratamenduzko produktuetan gama zabala

handi bat kendu dudan sentsazioa. Bide hori Rikardo eta biok ireki genuen duela 4 urte eta hasieran berak eta Patxi Arozenak igo zuten bakarrik. Nik bertan entrenatzen nuen, baina enkadenatze-
ra, osoa igotzera, ez nintzen ausartzen. Presio handia neukan eta azken mugimenduetan erori egiten nintzen. Inguruko jendeak bultzatuta iaz horretan zentratu nintzen, gainera Espainiako probetan parte hartzen ez dudanez, etxe babesleentzat zerbait egin beharra nengoen aldizkarietan eta ateratzeko. Honela saiatu eta lortu nuen. Ez nuen pentsatzen munduko lehen neska nintzenik, hori geroago konturatu nintzen, kanpoko aldizkariak eta irakurtzean. Horretan pentsatzen hasi baintzen ez nukeen igoko. Niretzat garrantzitsuagoa zen bide hori igotzen 3. pertsona izatea, zailtasun horretako bidea egiten lehen emakumea izatea baino.

- Sariak ere jaso dituzu. Horrek zer esan nahi du eskalada kirol bezala onartua izaten ari dela?

- 'Medalla de bronce al merito deportivo' eta Deia egunkariak euskal emakumezko



kirolaririk hoberenaren saria eman didate orain. Pertsonalki hori niretzat oso garrantzitsua da. Baina, eskalada, horrelako kirol minoritarioa onartua izatea, ministeritzak errekonozitzea, garrantzitsua da.

- Zein laguntza dituzu?

- Aurten Kirolgi fundazioan sartu naiz, esponsor batzuk ere badituzte eta federazioak kanpoko konpetizioen batera joateko laguntza eman izan dit. Baina hortik bizitzeko ezinezkoa da. Horrek suposatuko luke, gastuak kubritzea eta gainera soldata bat izatea. Ez da lortzen gastu guztiak estaltzea ere. Adibidez Estatu Batuetara joan nahi baduzu hango hormak frogatzera, dirua behar da. Eta nik eskalatzeaz gain lana egin beharra daukat.

- Fisikoa edo psikikoa da garrantzitsuagoa?

- Wolfgang Güllich eskalatzaile alemaniarrek esaten zuen giharrik garrantzitsuena burua dela eta neretzat arrazoia du. Ni presiopean oso urduri jartzen naiz eta niretzat psikikoa oso garrantzitsua da, beste batzuentzat agian ez.

- Eskaladak zertan aldatu zaitu?

- Gauza askotan, agian konturatzen ez naizenetan ere bai. Agian detaile txikiak gehiago baloratzen, batez era naturarekin harremanean. Sensiblegoa bihurtu naiz eta bakartiagoa ere bai. Eskaladan erabaki guztiak zerorrek hartu behar dituzu eta bizitzako beste hainbat alorretan ere erabaki guztiak neronek hartu behar dituzdan sentsazioa izaten dut.

- Eskalatzaile bezala zein da zure helburua?

- Eskalatzen disfrutatzea. Ez baduzu disfrutatzen, ez duzu zuk duzun guztia ematen. Nire helburua dibertitzea da eta horrela aterako zaizkit gauzak.

- Goierrin zein maila dago, jende gaztea ba al dator?

- Nik gazteak ez ditut ezagutzen baina nire inguruan betiko jende bera dabil. Euskal Herrian, Espainiarekin al-denduz gero kantitate eta kalitate aldetik ikaragarritzko maila dago.

- Zein leku dituzu gustuko eskalatzeke?

- Euskal herrian oso leku onak daude, agian txikiak dira baina kalitate handikoak. Denak ditut gustuko, denek dute beraien xarma. Estatu Batuetara joatea ere oso gustoko dut, hango jendea oso jatorra da eta deskantsu egunetan parke naturalak ikustea gustoko dut. Katalunia eta Hueska aldera joatea ere gustoko dut.

- Zein asmo dituzu hemen-dik aurrera?

- Beste 8c bat enkadenatu nahi dut eta 8c+ bat igotzea ere gustatuko litzaidake. Munduko txapelketan ere zerbait egin nahi dut. Baina aurten harkaitza eta konpetizioa konbinatzen oso zaila daukat, 9 txapelketa baitaude. Aurten ez bat eta ez beste ez dut egingo edo bestela ikaragarriren bat egingo dut. Behintzat disfrutatu eta ondo pasatuko dut eta hori ez da gutxi.

ITZALA

taberna

Zaldizurreta, 3

☎ 943 88 30 24

BEASAIN

AIARZA KARROZERIA



EDOZEIN AUTO EDO
IBILGAILUREN
KARROZERIA, TXAPA
ETA PINTURA

Iurre lantegialdea, 10

☎ 943 88 05 65 OLABERRIA

X A X O

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN

ARTANE

- Liburuak, Aldizkariak...
- Eskulanak
- Eskolarako gaiak

Andra Mari, 1

☎ 943 16 16 72

BEASAIN

**LURRAZPIKO
JAIA !!**



ARANA, 1

☎ 943 88 93 88

BEASAIN



✓ Aholkularitza
juridikoa

✓ Entrepresa
zerbitzuak

✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel./Faxa: 943 16 21 92

Kale Nagusia, 2

BEASAIN



La Salle ikastetxeak 1948. urtean

Goiko ilaran ezkerretik eskubira: Juantxo Aiestaran, Lukas Gorrotxategi, Martin Etxezarreta, Pako Esnaola, Josetxo Zufiaurre, Juan Migel Mendizabal, Barcenilla, Gregorio Irizar eta Aitor Garmendia.


Beheko ilaran: ezezaguna, Del Olmo, Muñoz, praileak eta Martin Albisu.



BARANDIARAN Taberna

- Eguneroko bazkariak
- Afariak
- Baserriko oilaskoak

Nagusia, 3
☎ 943 88 92 10
BEASAIN



- ✓ Pinturak
- Dekorazioa
- Industrialak
- ✓ Tresnak
- ✓ Makineria

Tfnoa./faxa: 943 88 65 63
Oriamendi, 32 BEASAIN

BEASAINGO



**'Euskaraz mintza
hori da gure hitza'**

San Martin Pl, Kultur Etxea
☎ 943 80 52 54
BEASAIN

EDARITEGIA



KAFETEGIA

Festa onak pasa!

Nafarroa Etorbidea, 27

☎ 943 88 86 81

BEASAIN

BK

BEGIRISTAIN KOPIAK

HP DESIGNJET 3000 CP PLOTERRA

OSOTASUNEZKO KOPIAGINTZA

INPRIMAKETA DIGITALA

DISEINU GRAFIKOA

Erauskin plaza z/g BEASAIN
Telf.:943 16 09 74

Urdaneta kalea 18 ORDIZIA
Telf.:943 16 14 69



Agian A3aren mundutik alde egiteko garaia da

Alpe

MASTER
CABENA

SUKALDEAK

SUKALDEKO ALTZARI
ETA
ELEKTRAGAILUAK



Zatoz gure erakusketa ikusterā!

- Ordenagailuz diseinatu eta geuk montatuko dugu zure sukaldea.
- Formika eta haritz zura kolore aukera handiarekin.
- 5 urteko garantia
- Elektragailuak

Salmenta eta erakusketa

MARIARATZ, 4

☎ 88 86 84

BEASAIN

Euskal Herrian okela ona dugu



Informazio gehiago telefono honetan

901 50 55 55*

* Telefono zenbaki hau 1999ko maiatzaren 3tik ekainaren 15era erabil daiteke.

Kalitateko Euskal Labela duen abelgorri okela **osasuntsu, zaporetsu eta naturala.**

EUSKO LABEL



KALITATEA



EUROPAKO ELKARTEAREN
PARTAIDETZAREKIN FINANTZATUA



Labeldun okelen
salmentan duten
espezializazio maila
handia dela eta, ikur
honekin (►) adierazitako
Harategi Baimenduek
ARTISAU ERAKO
HARATEGI
ESPEZIALIZATUEN
sailkapena dute
Kalitateko Eusko Labela
duten produktuetan

ATAUN

ERAUSKIN HARATEGIA
Elbarren, 32

BEASAIN

- CARNICERÍA OLANO
Santa Maria, 3
- CARNICERÍA IÑAKI ZUBELDIA
Mayor, 14
- PEIO HARATEGIA
Mariarats, 2
- CARNICERÍA JOSE MANUEL
DEBA
Juan XXIII, 3
- SUPER ARMENDARIZ
Avda. Navarra, 9

SALTSAMENDI HARATEGI-
URDAITEGIA
Igarza Oleta, 12

JOSE HARATEGIA
Jose M^o Iturrioz, 1

IDIAZABAL

LUIS M^o HARATEGIA
Kale Nagusia, 16

ORDIZIA

LUISA MUNDUATE HARATEGIA
Santa Maria, 23

LASA HARATEGIA
Euskal Herria, S/N

EZEIZA HARATEGIA
Mayor, 29

ORMAIZTEGI

CARNICERÍA IÑAKI CAMPOS-
EROSLE
Zumalakarregi, 24

SEGURA

HARATEGI-URDAITEGI GOIKO
EROSLE
Zurbano, 8